

328.ZENBAKIA-2023-OTSAILA-EURO BAT

BALEIKE

ZENBAKI HONEKIN BATERA
+ GUKA ALDIZKARIA

EKAIN ALBITE

BIZITZAK ENKOADRATZEN

**ATE BERRIAK
IREKITZEN JARRAITZEKO PREST?**



zumaiena

MATRIKULAZIOA

Otsailaren 13tik 24ra

ATE IREKIAK: OTSAILAK 11



BALEIKE 328

2023-OTSAILA

AZALEKO ARGAZKIAREN EGILEA:
ARNAITZ RUBIO APREA



Aurkibidea

- | | | | |
|----|--|----|---|
| 4 | Hitz tantak Juan Luis Romatet
<i>Nerea Hernandez eta Mertxe Izeta:</i>
<i>"Pandemiaren ondoren itzuliko ote ginen galdetzen ziguten eta bai, itzuli gara"</i> | 25 | Heziketa Mireia Centeno
<i>Amorrua ikasgai</i> |
| 6 | Hainbat aburu Alberga Elkartea
<i>Etorkizuna gurea da</i> | 26 | Plazan bazan |
| 7 | Errematea Eire Maia Manterola
<i>Zergatik on edo txar?</i> | 30 | Hamaika argi gure euskarari
Imanol Azkue Ibarbia eta Daniel Carballo Ostolaza
<i>Tabernetan</i> |
| 8 | Elkarriketa Juan Luis Romatet
<i>Ekain Albite: "Diziplina desberdinetako artisten kolaborazioak gauza ikaragarriak sortitzake"</i> | 35 | Kultura Juan Luis Romatet
<i>Joseba Ossa: "Sauna ez da kiroldegietako osagai estetiko bat, askoz esperientzia sakonagoa baizik"</i> |
| 15 | Erreportajea Aitor Manterola
<i>Markesaren arraunlariak</i> | 44 | Literatura Antton Peñalba
<i>Bar Gloria</i> |
| 20 | Erretratua Aritz Mutiozabal
<i>Josebe Ormazuri, promozio ko koordinatzailea Elkar argitaletxean</i> | 45 | Agenda |
| | | 46 | Azkena Juan Luis Romatet
<i>Sarrerak</i> |

BALEIKE



Argitaratzailea

Urolako Komunikazio Taldea
Koop. Elk.
Soreasu 1. 20730
AZPEITIA
943-86 15 45
aldizkaria@baleike.eus
www.baleike.eus

Zuzendaria

Juan Luis Romatet
jlromatet@ukt.eus
Erredaktore taldea
Maria Maya Manterola
Onintza Lete Arrieta
Aritz Mutiozabal

Argazkilaria

Arnaitz Rubio Aprea
Diseinu arduraduna
Ane Azkue
Hizkuntza arduraduna
Imanol Azkue Ibarbia

Publizitate arduraduna

Felix Aizpuru
faizpuru@ukt.eus
Administrazio arduraduna
Uxua Ostolaza
uostolaza@ukt.eus

Inprimategia

Antza Inprimategia
(Lasarte-Oria)
Lege Gordailua:
SS-405/94
ISSN: 1136-8594
Tirada: 1.000 ale



Gipuzkoako Foru Aldundia

Zumaiako
Udala



Nerea Hernandez eta Mertxe Izeta: "Pandemiaren ondoren itzuliko ote ginen galdetzen ziguten eta bai, itzuli gara"

TESTUA: JUAN LUIS ROMATET

ARGAZKIA: ARNAITZ RUBIO APREA

Aurten bueltan izango dira kaldereroak, pandemiak behartutako bi urteko hutsartearen ondoren. 2019an atera ziren lehen aldiz Zumaian, eta 2020an, izurritea ordurako ate joka zela, egin zuten bigarren kalejira. Aurten otsailaren 11n egingo dute desfilea. Nerea Hernandez eta Mertxe Izeta dira festa horren antolakuntzaz arduratzen den taldeko kideetako bi.

Kaldereroak Hungariatik etortzen omen dira.

Hungariarrak izateko itxura handirik ez duzue. Nondik zatozte?

Nerea Hernandez: Ni Errenteriatik nator.

Mertxe Izeta: Eta, ni, Debatik. Ez gara Zumaiaakoak ez bata, ez bestea.

Nola sortu zen kaldereroen kalejira egiteko ideia?

N.H.: Erraza da: ni bizitza osoan atera izan naiz kaldereroekin Errenterian, eta Mertxe ere bai, Deban. Bizitza erdia daramagu hemen bizitzen; 32 urte daramatzat Zumaian. Elkartu ginen, eta kaldereroak Zumaian egitea proposatu genuen. Guk bizi izan dugun hori hona ekartzea pentsatu genuen.

M.I.: Deban ere egiten ziren kaldereroak; garai batean egiteari utzi zitzaion, baina orain berriro hasi dira. Hemen bezala, kuadrilla batek antolatzen zuen, eta jendea batu egiten zen;

orain, Debako Musika Eskolak antolatzen du.

N.H.: Errenterian gurdiekin-eta ateratzen dira. Erreginak gurdietan joaten dira. Han handia da, gurea txikiagoa.

Zer harrera izan zenuten lehen urtean?

N.H.: Urte eta erdi inguru kostatu zitzaigun Kultura sailak gure ideia aintzat hartzea. Lehen bileran erabaki genuen 30 pertsona biltzen baginen aterako ginela; taldea 30era heltzen ez bazen, ez ginela aterako. Bada, lehen urtean 80tik gora lagun atera ginen, eta bigarrengoan, 140 baino gehiago.

M.I.: Jende asko izan zen, kontuan hartuta herrian ez zela halakorik inoiz egin.

N.H.: Adin guztietako jendeak hartzen du parte festa honetan: umeek, gazteek, helduek...

Familiarteko festa bat da.

M.I.: Zumaiaiko jende bat Azpeitiko kaldereroetan ateratzen zen, baina hemen antolatu genuenean, Azpeitira joateari utzi zioten hemen geratzeko.

Inauteriek Zumaian ez dute beste herrietan duten garrantzirik. Erraza izan al zen jendea parte hartzera bultzatzea?

N.H.: Ez zen zaila izan.

M.I.: Hedabideetan agertu, eta berehala hurreratu zen jendea. Lehen bileraren asmoa izan zen jakitea zenbat lagun bilduko ginen, eta ikusi genuenean 30etik gora ginela, dena antolatzen hasi ginen.

N.H.: Jende batek sekulako jantziak prestatzen zituen, etxean jositakoak-eta.

M.I.: Bitxia izan zen, baina lehen urtean hartzaren jantzirik ez genuen, eta pertsonako euro bat eskatu genuen hura erosteko. Jendea prest zegoen gehiago jartzeko ere.

2020. urte hasieran heldu zen birusa gurera...

M.I.: Ordurako eginda genuen kaldereroen desfilea, baina zerbait sumatzen zen. Kaldereroak egin ziren, inauteriak ere bai, eta [santelmoetako] danborradaren bi entsegu saioen ondoren, denak etxera bidali gintuzten.

N.H.: Jende batek, penaz, esaten zuen azken kaldereroak izango zirela. Galdetzen ziguten ea itzuliko ginen, eta bai, itzuli gara.

Zuen kuadrilla ez da geldirik egotekoa: Sevillara joan zineten danborradarekin traineruen estropada batera, kaldereroak ere antolatu dituzue...

M.I.: Adin eta jatorri askotako jendea gara, elkarren artean zer ikusi handirik ez duena. Lagunak egin ginen, eta halako gauzak egitera animatzen gara.

N.H.: Gauza askotan parte hartzen dugu, eta laguntza eskatzen badigute, edozein tokitara joango gara. ■■■



Etorkizuna gurea da

Garai zailak ditugu, eta etorkizunak ez du argitasun gehiegi. Azken hamarkadetan gizarte inbertsonalago eta berekoiagoa eraiki dugu, momentuan eta efimeroan bizi dena. Desberdintasun ekonomikoak areagotzearekin batera, gizarte hobe bat eraiki eta lagun hurkoa laguntzeko eta zaintzeko ardura gero eta karga gehiago dituen estatuaren gain utzi ditugu. Bide horretan, norbanakoak nahi duena egiteko askatasunak gain hartu dio komunitate zentzuari, etorkizun kolektibo hobe bat eraikitzearen bideari.

Komunitateaz arduratzeko, kapitalismo eta estatu kapitalisten ereduez harago joan eta horiek garaituko dituen eredu eta jardunak hemen bertan baditugu, urrutira joan

beharrik gabe. Zaharrenak Pirinioetan oraindik bizirik dirautelarik herri-lur eta komunalen antolakuntzaren inguruan; berriagoak, 1950eko hamarkadan Debagoienan garatu zen mugimendu kooperatiboan, eta gaur egun, indarra hartzen ari den olatu berriko eraldaketa sozialeko kooperatiben mugimendu berrian.

Horiek guztiek premisa berak dituzte oinarri, hala nola, gizakia jartzea eredu ekonomikoaren oinarrian, elkar lanerako beharraz jabetzea, lanaren indarra jabetzaren legitimazio bezala jartzea, beste gizakien errespetua, eta norbere buruaren jabetza aldarrikatzea, bai banaka zein kolektiboki. Balio horiek egungo gizartean arrotzak bihurtzen ari zaizkigu, abiadura ikaragarrian.

Belaunaldi berrien gehiengoak norbanakoaren arrakastatik, indibidualismotik eta esfortzu gabeko ereduetatik edaten dute beraien etorkizuneko bizitza irudikatzen orduan.

XX. mende amaieran gizarte antolaketa desberdinen gainbehera ikusteko aukera izan genuen, bai kapitalismo fordista klasikoaren gainbehera, baita estatu sozial europarraren eta bloke sozialistarena ere. Herrialde bakoitzaren kasuistikaren arabera, moldaketa eta trantsizio desberdinak eman ziren, baina guztietan gizarte antolakuntza txikiagotu eta indibidualismoa handitu zen. Ondorioz, XXI. mendean neoliberalismoak oraindik gehiago areagotu dira.

Bidea zaila da, harri eta zailtasun ugari dituelako bidean, egungo korrontearen

HAUXE BAI JENEROA!



ERREMATEA



EIRE MAIA MANTEROLA

Zergatik on edo txar?

Zergatik ona? Zergatik txarra? Zuria ala beltza? Zerk zehazten du bien arteko muga? Askotan gure barruko balioek, bizipenek edota sistemak ezarritako arau eta ikuspenek erabakitzen dute. Denok izan gara gaiztoak edota zintzoak noizbait, baina horren aurrean erakusten dugun jarrerak bereizten gaitu.

Oso subjektiboa izan daiteke ona eta txarraren arteko bereizketa. Ezin gara denentzat onak izan, ezta txarrak ere. Ezinezkoa da dena beti ondo egitea, eta askotan zaila izaten da geure buruari hori azaltzea. Ezinezkoa da inguruko denei gustatzea. Denok ditugun akatsak, baina horiek konpontzeko egiten ditugun esfortzu eta ahaleginek gehiago diote geure buruaz gure hanka sartzek baino. Egindakoek sentiarazten diguten kulpak itsutzen gaitu, nahiz eta agian zerbait puntuala izan eta gure berezko izaera kontrakoa izan. Horrek ez gaitu txarrak egiten. Huts egite horietan iltzaturik geldituko bagina, beti izango ginateke gaiztoak.

Hori dena askatu eta aurrerantzean ikasitakoaz baliatzea da garrantzitsua, zintzoagoak eta hobeak izateko. Zaila da onak eta txarrak bereiztea, baina norberak daki zerk bihurtzen gaituen bietako bakoitza, horrek kokatzen gaitu mugako alde ezberdinetan. ■

kontra doalarik. Hala ere, kontrako haizeek ez gaituzte beldurtzen utzi behar; izan ere, gure etorkizunaren jabe garela onartu eta horren arabera jokatu behar dugu. Bide horretan, beharrezkoa da orain ez urte askora arte errotuak genituen oinarrietara bueltatzea, gure ondorengoei gurea baino gizarte hobe bat uzteko, bizitzeko beharrak asetzeko, lana oinarri dela onartuz eta honek sortzen duela gizarte hobe bat eraikitzeko beharrezkoa den aberastasuna. Gure hautua oso argia da: hemen eta orain hasi behar dugu gure lan indarra beste era batera antolatzen, gizakia erdigunean eta oinarri bezala jarri, justizia soziala eta gizarte ongizatearekin batera. Gure lan indarra premisa hauen inguruan antolatzeak ekarriko

dizkigu gure behar kolektibo eta norbanakoak era justuago batean asebetetzeko tresnak.

Bere izateko eragatik, behetik gora sortua izatearen beharra du gizarte kooperatiboaren eraikuntzak, gizakia oinarri eta helburu dituelarik. Behetik gora antolaturiko ekimen batek soilik izan ditzake sustrai sakonak baina adar malguak, etorriko diren zailtasunei azkar aurre egiteko. Etorkizuna orain eta hemen moldatzen hasiko garenaren hautua egitea dakar gizarte kooperatiboaren eraikuntzaren bideak, gure etorkizunaren jabe garela onartuz eta hala jokatzeko, gizarte bezala ditugun eta izango ditugun arazo eta erronkei aurre egitea guri dugunaren arduraren jabe eginaz.

Etorkizuna gurea da, eta hala izanik, ez dugu etsiko. ■

FRANTSESEZ HITZ EGITEN
NIEN BAKOITZEAN ESPAINOLTZAT
HARTZEN NINDUTEN

ETA EUSKARAZ HITZ EGITEN NIEN
BAKOITZEAN ERE, ESPAINOLTZAT
HARTZEN NINDUTEN

@garbineubeda



"Diziplina desberdinetako artisten kolaborazioak gauza ikaragarriak sor ditzake"

EKAIN ALBITE ZINEMAGILEA

Musika eta zinema uztartuko dituen proiektu batetik, landa eremuan kokatutako eta politikak ukitutako film luze batera. Bi proiektu horietan murgilduta dabil gaur egun Ekain Albite zinemagile zumaiarra. Ilusioz gainezka, baina estresa ate joka duela bizi da zinemagilea urte hasiera honetan.

Testua: **Juan Luis Romatet**. Argazkiak: **Arnaitz Rubio Aprea**.



Bi proiektutan buru-belarri sartuta dabil Ekain Albite Arregi (Zumaia, 1999) zinemagilea egunotan. Batetik, Lucia Lacarra eta Matthew Golding dantzarien proiektu berrirako irudiak filmatu ditu Albitek. *Love letters* du proiektuak izena, eta Bigarren Mundu Gerran kokatzen da. Ikuskizun hori datorren udazkenean aurkeztuko dute Bilboko Arriaga antzokian. Bestetik, *Negu hurbilak* bere lehen film luzean ere lanean ari da. Ondo bidean, uda amaieran – Donostia Zinemaldian ote?– aurkeztuko du. Lanez gainezka –Zumaian grabatutako film labur bat oraindik estreinatu gabe dauka–, libre duen egun bakarrean egin dio tarte *Baleikeri* honi guztia buruz hitz egiteko, non eta Aita Mari zineman. Kanpoan, haurrak Erregeen pajeei gutunak ematen ari zaizkie. Zer eskatuko ote du Albitek?

Lucia Lacarraren *Lost letters* proiektuan ari zara lanean. Nola heldu zaizu lan hau?

Nafarroan egiten ari garen pelikula bateko erroldajea amaituta etxean nengoan deprimituta –edozein erroldajeren ondoren beti dago aje emozional handi bat– eta Luciaren mezu bat jaso nuen; esku artean proiektu berri bat zuela zioen. Arte zaletasuna edo intuizioa duen herriko edo inguruko jendearekin lan egiteko gogoia zuela nabaritu nuen hitz egiteko geratu ginenean. Hemen, Aita Marin, behin film labur bat aurkeztu nuen (*Erroitz*, 2019) eta haren trailerra *Baleiken* argitaratu zenuten; hura ikusi zuen Luciak. Proiektu berria lantzen ari zirenean, Lacarra eta bere bikotekide Matthew Golding ohartu ziren beraiek nahi zuten sentazio hori aurkitu zutela trailer horretan. Nik uste hor sortu zitzaizela beraiei nirekin lan egiteko gogoia, batetik herrikoa nintzelako, eta,

bestetik, behar zuten sentsibiltatea aurkitu zutelako nire lanean.

Zinema mota narratiboa landu duzu orain arte; Lacarrak eta Goldingek beraien ikus-entzunezkoetan estilo lirikoagoa, onirikoagoa erabiltzen dute. Erraza izan al zaizu haien lan egiteko moduarekin bat egitea?

Lehen egunetik esan nien asko eskertzen nuela nirekin kontatu izana, [proiektua] aurrera aterako genuela eta asko ikasiko nuela honekin, baina ni beste mundu batetik nentorrela eta beldur hori banuela. Nik uste lehen aldiz benetako pelikula bat egin nahi izan dutela. Orain arte irudiekin lagundu izan dituzte beraien dantza ikuskizunak. Beraien azkenekoan, *In the still of the night*-en, irudiak ia ikuskizun osoan zeuden, baina ez zen heltzen film bat izatera. Oraingo honetan, pauso hori eman nahi zutela esan ziguten, pelikula bat egin nahi zutela, alegia, oso abstraktua izango dena, baina, aldi berean, hari bat duena. Horrek ahalbidetu digu beraien munduan sartzea. Dialogorik ez dago, baina gidoi bat duen filma da, hari batekin, pertsonaia batzuekin eta garapen batekin. Dantza, noski, egongo da; beti egongo da dantza, eta irudiek osatuko dute ikuskizuna. Hala ere, hitz egitean konturatu ginen filmak dantzarik gabe ere funtziona zezakeela.

Lanketa nola egin duzue?

Askok hitz egin dugu elkarren artean. Jakin behar genuen une oro eszenatokian zer gertatuko zen. Adibidez, ezin genuen lehen planorik egin; ezinezkoa zen pantaila handian lehen planoan agertzea beraiek dantzan ari direla. Guretzako kristoren ikasketa prozesua izan da, guretzako orain arte existitu ez den bide bat aurkitu behar genuelako. Ikusi dugu zinema noraino tenka daitekeen, baita beraien dantza -filmean ere dantza egiten dute eta- noraino zinematografikatu daitekeen. Guk zinema alderantz tiratzen genuen, beraiek alde onirikora, eta bien erdian egongo da filma. Oso polita izan da sortu ahal izatea dantzaren eta irudiaren arteko tirabira horretan.

Tirabira aipatu duzu. Dantzariak alde batean, zinemagileak bestean. Noraino tiratu izan duzue, kontuan hartuta izarrak beraiek direla?

Hasiera-hasieratik esan genien beraiei laguntzera gentozela. Guk gure ideiak bagenituen, baina garbi genuen beraien filma zela, eta guk emango genizkiela filmarentzako eta ikuskizunerako gure ustez onenak ziren gomendioak. Azken erabakiak, noski, beraien esku zeuden. Tirabira horretan, elkarriketa ordu pila bat izan ditugu, eta adibide

pila bat ikusi ditugu. Biak dira sortzaile handiak, baina Goldingek ezagutzen du zinemaren dimentsioa, eta oso konpenetratuta heldu gara errodejera. Errodajea ere izan dira tirabirak, beti daude tentsio uneak errodajeetan, baina bagenekien norantz egin behar genuen arraun.

Esan daiteke proiektu honetan zinema musikala landu duzuela. Genero horren zalea al zara?

Bada, nik, adibidez, ez nuen inoiz ballet dantzaldi bat ikusi. Film musikal batzuk ikusi ditut, noski, baina ez naiz genero horren jarraitzaile sutsua. Gehiago izan da abentura batekin lotutako proiektu bat. Pelikulak egiten zoazen heinean, zure trukoak ikasten dituzu, eta badakizu zerk funtzionatzen duen, eta zerk ez. Hemen, ikusten genuen zerbait ezberdina egiten ari ginela, ulertzen ez genuen zerbait. Baina ikasteko balio izan digu, eta hormaren kontra ere jarri gaitu behin baino gehiagotan. Ezjakintasun horretatik etorri da benetako ikasketa. Gero, beraien ikuskizunak ere ikusi ditugu, eta hor mundu bat deskubritu dugu; hor ikasi behar duzu nola bihur zaitezkeen mundu horren parte.

Noiz hasi zineten proiektuarekin lanean?

Lehen elkarrizketak iazko abuztuan izan genituen. Gero, hilabete batzuetan aurretiko lanak egin ondoren, azaroan egin genuen errodajea.

Gidoirako beraiek ideia handi bat zuten, *Lost letters*-en kontzeptua bazuten; gure lana izan da hori espresatzea. Filma egiteko asmoa zegoen, baina horrek estilo bat, zinematografia bat, argiteria bat edota kamera estilo bat eskatzen zituen. Ez zen elkarrizketa bat edo beraiek dantzan grabatzea bakarrik; hamaika gauza behar dira film bat egin ahal izateko.

Agian, kamera mugimenduekin-eta mozkortzeko arriskua izango zenuten.

Hor ere eztabaida asko izan ditugu geure artean. Bagenuen beldurra ea ez ote ginen ariko gehiegi errepikatzen. Momentu oro zegoen musika, eta filma une batzuetan geratu nahi izan dugu isiltasun uneak txertatuz. Hor filmak eboluzionatu egiten du. Pelikula gure aldera eramaten saiatu gara zinemak dituen eta grabatutako dantzaldi batek ez dituen kolore desberdin horiek izan ditzan.

Non grabatu duzue filma?

Dena Zumaian egin dugu. Labarretan grabatu dugu, Itzurunen, Urola ibaian, tren zubi azpian, ontzien eskeletoak ikus daitezkeen lekuan, komentuan ere grabatu dugu... Zumaian grabatuta ere, azken urteetatik hona herriko irudi



karakteristikoak bihurtu diren horietatik ihes egin nahi izan dugu. Itzurunen grabatu behar genuen, labarretan ere bai, baina erronka bazen nola grabatu leku horietan topikotik urruntzeko. Mundu gerra batean oinarritutako istorio bat da, eta Zumaia leku horretara eraman nahi izan dugu. Zentzu horretan, irudiek beste dimentsio bat eman diote filmari.

Estreinako data dagoeneko erabakita dago. Zer momentutan aurkitzen da lan prozesua?

2023ko urrian estreinatuko da, Bilboko Arriagan. Lehen grabazio bat egin dugu, eta horrekin ia pelikula osoa egin dugu. Orain, otsailaren amaieran, bigarren grabazio saio bat izango dugu, irudi batzuk falta zaizkigulako. Bitartean, lehenengo zatia muntatzen ari gara. Postprodukzioan otsaileko irudiak sartuko ditugu, eta gero kolorea moldatu eta musika sartuta bukatuta izango dugu. Estreinako egunaren aurretik bukatu behar dugu, arrazoi batengatik: pelikula horren arabera sortu behar dutela Lacarrak eta Goldingek koreografia. Hori izan zen beraien apustuetako bat, eta horrek konfiantza eman zigun, sortzeko margen handia eman zigulako.

Apustu hitza aipatu duzu. Beraiek ere apustu handia egin dute hau guztia 23 urteko gazte baten eskuetan jarrita.

Asko eskertzen dudana apustua da, beti eskertuko dudana, halako proiektu bat onartu dutelako. Lagunei ere eskerrak eman nahi dizkiet; erabaki kolektibo bat izan da, eta hori ere oso polita da. Denok sartu gara abentura honetan, denok elkar elikatu gara, eta denoi eman dizkigu gauza positibo pila bat: bestela inoiz ikasiko ez genukeen zerbait ikasi dugu. Diziplina desberdineko artisten arteko benetako kolaborazioak gauza ikaragarriak sor ditzake.

23 urte dituzu, ez dut esango hasiberria zarenik, baina kasik bai. Zer suposatzen du proiektu honek zure ibilbidean?

Pauso handi bat da, eta, gainera, hain azkar etortzea espero ez nuen norabide batean: nireak ez diren proiektuetan sortzeko aukera izatea. Lucia Lacarrak eta Matthew Goldingek duten errekonozimenduarengatik toki askotan ikusiko da pelikula, eta hori eskertzen dut. Baina, batez ere, proiektuak beste kolaborazio batzuk egiteko, beste proiektu mota batzuk egiteko ate batzuk zabalduko dizkidalako. Eta gero, ni neu konturatzeko zenbat gauza egin ditzakegun proiektu pertsonalez gain. Batzuetan gure

proiektu pertsonaletan itotzen gara. Ni, ni, ni, eta hor agertzea gu bat, bada, horrek pila bat laguntzen du ikusteko badagoela beste bide bat. Ikusten duzu zenbat tokitan aurki daitekeen zinema.

Enkarguek kutsu peioratiboa izaten dute, baina, berez, kolaborazio hau enkargu bat da.

Ulertu behar duzuna da beraien proiektu bat dela, eta beraiek erabiliko dutela. Gero, enkargua izatea edo ez, hori txorakeria da. Gustura sentitzen zara hori eginez, zeuretik jartzen duzu, eta gainera, zerbait ikasten duzu hori eginez. Jode! Enkargu gehiago etor daitezela! Gero, zure proiektua egiten duzunean, aginduko duzu, eta zure gauza pertsonalak sartuko dituzu.

Zure bizitzan atzera eginda, noiz eta nola piztu zitzaizun zinema egiteko grina?

Txikitan ez nuen inoiz izan pelikula bat ikusi eta zuzendari bihurtu nahi nuenaren ideia hori. Antzerkia ikasi nuen Esti Curielekin eta Inazio Tolosarekin, komentuan. Gure osabak telebistan egiten du lan, Galizian, eta behin esan zidan ea zergatik ez nituen antzerki saio horiek grabatzen. Kamera bat eman zidan, kamera digital txiki horietako bat. Saio horiek grabatzen hasi nintzen. Gero, Gaztetekeko film laburren lehiaketetan ere parte hartu nuen. Denborarekin, kamera hobe bat erosi nuen, hasi nintzen plano-kontraplanoak-eta lantzen, muntaketa ezagutu nuen. Hor ikusi nuen Bartzelonan zinema eskola bat zegoela, eta zinema ikasteko aukera zegoela. Garbi nuen ez nuela Ikus-Entzunezkoen Komunikazioa ikasi nahi; hori baino nahiago nuen Filosofia edo zinemarekin zerikusirik ez duen beste zerbait ikasi; zinema ikasi nahi banuen, muturreraino joan behar nuen. Beti geratu izan zait antzerkiarekin ez jarraitu izanaren pena, oso ondo pasatzen nuen eta. Eta, orain, lotsa ere ematen dit kamera aurrean jartzeak...

Batzuetan esan izan ohi da: "Zu artista izateko jaio zara". Nire kasuan ez da inolaz ere horrela izan. Egoerak eraman nau nagoen lekura, neure buruarekin gustura sentitzen naizen leku bat aurkitzera.

Saharari buruzko proiektu bat eskuetan zenuela ezagutu zintudan. Haizearen egia bihurtuko zen handik denbora batera, baina orduan, gidoia besterik ez zenuen. Gogoan dut ilusioz gainezka zeundela. Ume moko hartan zeure burua errekonozitzen al duzu?

Orduan nuen ilusioa gogoratzen dut, bai. Pila bat, gainera. Handitzen zoazen heinean ilusioa galtzen duzu, baina ez beti. *Haizearen egia* izan

zen profesionalki egin nuen lehen lana, eta pauso handi bat izan zen. 15 urterekin egon nintzen Saharako kanpalekuetan, eta 18 urterekin esan nuen "goazen zerbait egitera"; sinesten dudan zerbait, batez ere. Ilusio hori, sineste hori, beti mantentzen saiatu naiz. Gero, ilusioarekin, badakizu zer gertatzen den: birrintzen zaituzte, ilusioa berreskuratzen duzu, berriro birrindu... Baina, indar edo sineste hori mantentzen saiatzen naiz, baita ilusioa duen jendearekin lan egiten ere, kanpotik makina bat ezezko eta desilusio etortzen dira eta. Ilusioa duen eta motibatzen zaituen talde batekin lan egitea polita da, babestuta sentitzen zara eta. Sentitzen duzuna egiten jarraitzeko baliagarria egiten zaizu.

Gai sozialak landu izan dituzu zure lanetan.

Barrenean zerbait sortarazten dizkidaten gaiak bilatzen saiatu naiz beti. 15 urterekin Saharara joateak barruan korapilo bat sortu zidan, adibidez; garbi nuen beraiegana bueltatu nahi nuela, laguntzera, baina baita beraien errealitatea ezagutzera ere; hori izan zen lehen pausoa. Bigarrena, film labur bat egitea, beraien bizitza ezagutzera emateko balioko zuena. 2020an bukatu nuen lan hori, baina COVID-19a zela eta, ezin izan zen erakutsi Saharan bertan 2022ra arte. Bertan aurkeztu genuen eta oso esperientzia polita izan zen. Hor ikusi nuen zer indar duen herri horrek desertuaren erdian zinema jaialdi bat antolatzeko.

Ukitzen nauten gaiak lantzen saiatzen naiz. *Haizearen egian*, egindako beste film laburretan, edo orain egiten ari garen film luzean ere, hala gertatu da. Arteak barruan daramazun jakin-min hori ateratzeko balio dizu.

Beste film labur bat ere egin dugu, oraindik estreinatu ez dena: *Uhara*. Zumaian grabatu dugu, Sambourekin [Diaby, aktore zumaiaarra]. Kuadrillako lagunak ginen, eta konfinamenduan hitz egiten hasi ginen bideo-dei bidez. Bizitako hori guztia kontatzera animatu ginen, bera kamera aurrean, ni atzean. Orain *Negu hurbilak* film luzean ari naiz lanean. Nafarroan errodatu dugu, eta iheslari baten istorioa kontatzen du.

***Negu hurbilak*, *Lost letters*... Biak batera ari zara egiten?**

Horregatik hitz egiten dut hain azkar! Hemendik bi egunera dugu errodejera berriro, eta pentsatzen nabil zenbat lan dudan egiteko! Nahiko estresatuta nabil...

Lehen film luzea duzu. Bertigo pixka bat ere sumatuko duzu, ezta?

Kristorena. Errodajearen parte bat orain urtebete egin genuen, eta orain bigarren zatia egingo dugu.



"HASIERATIK ESAN GENIEN BERAIEI LAGUNTZERA GENTOZELA; AZKEN ERABAKIAK BERAIEEN ESKU DAUDE"

"BETI ESKERTUKO DUDAN APUSTUA DA, HALAKO PROIEKTU BAT ONARTU DUTELAKO"

"BARRENEAN ZERBAIT SORRARAZTEN DIZKIDATEN GAIK BILATZEN SAIATU NAIZ BETI"

Nafarroako Zubieta herrian grabatu dugu. Fikziozko lana da, eta 16 milimetroan grabatu dugu, analogikoan. ESCACen [Escola Superior de Cinema i Audiovisuals de Catalunya] film labur bat egin behar duzu Gradu Amaierako Lanerako. Film labur hori handitzen joan da, eta azkenean, pelikula bat egin dugu.

Pelikula bat egiteak ekipo handia mugitzea dakar, eta Zubietara bi kamioi eta 30 lagunekoa taldea eramaten genituen. Hori pelikula bat egiteko ez da ezer, baina guretzako, asko da. Film honetan lau zuzendari izango gara: Mikel Ibarguren zestoarra –berez aktorea da, baina gurekin zuzendari lanak egiten ditu–, Bartzelonako bi ikaskide, eta neu. Modu kolektiboan egindako lana da. Jone Laspiur da protagonista, *Ane* eta *Akelarre* filmetan aritu dena, eta herriko jendeak ere egiten ditu aktore lanak. 2010ean girotuta dago, ETaren su etenaren testuinguruan, eta iheslari baten bizitza kontatzen du, baita ihesaldi horrek Nafarroako iparraldeko mugako herri batean nola eragiten duen ere. Politika badago, noski, baina filmak alde emozionala jorratzen du. Iheslari bat dago herrian, 22 urterekin bere bizitzako esperientziarik gogorrena bizitzen ari den pertsona, baina herriak bere ohikotasunean jarraitzen du. Zineman hain ohikoa ez den ikuspegi bat erakutsi nahi dugu.

Zeluloidearekin errodatu duzuela diozu. Zergatik erabaki duzue hori, jakinda, gainera, horrek asko garestituko duela prozesua?

Motzean

- Txikitan gehien gustatzen zitzaizun pelikula? *La historia interminable*.
- Zuzendu nahi izango zenukeen filma? *O que arde*.
- Inoiz ikusi duzun pelikularik txarrenea? *Ocho apellidos vascos*.
- Gogoko duzun zuzendari bat? Eduardo Teddy Williams.
- Aktore bat? Sambou Diaby, betirako nire aktore gogokoena.
- Gogoko duzun genero bat? Oso motelak diren filmak. Slow cinema generoa asko gustatzen zait.
- Behin eta berriz ikusi duzun pelikula bat? *Amama*.
- Norekin nahiko zenuke lan egin? Moriarti produktzioekin.

Askoz garestiagoa da. Analogikoa aukeratu dugu maite dugulako analogikoa, eta digitalarekin galdu den aukera bat eskaintzen digulako: ezin ditugula hartzeak asko errepikatu. Benetakotasun bat lortzeko aukera ere ematen digu. Gehiago laguntzen du une magiko horiek lortzen. Arrazoi estetikoak ere badaude, noski. Zubieta bezalako leku bat jasotzeko modua ere ematen du analogikoak. Beste garai batera ere eramaten zaitu, eta analogikoa izateak horretan laguntzen digu, esentzia hori baduelako.

Zenbait zinema jaialditan aurkeztu dituzu zure lanak. Saharako jaialdian aurkeztu zenuen *Haizearen egia*, eta Espainian, Xixonekoan ere egon zara, esaterako.

Negu hurbilak aurkeztzen izan gara. Pelikula ez dago bukatuta, eta aurremuntaketa jaialdietako *work in progress* delakoetan aurkeztzen gabiltza, azken erroldajea eta postprodukzioa finantzatu ahal izateko. Mallorcan egiten den Atlantida jaialdian aurkeztu dugu, Xixoneko jaialdian egon ginen, Bartzelonako L'Alternativen ere bai, baita Tarragonako REC nazioarteko jaialdian ere. Denetan ere ordubeteko lehen muntaketa bat aurkeztu dugu. Baliagarria izan zaigu jendearen iritzia jasotzeko: zer dagoen ondo, non huts egiten dugun.

Oraindik filmarekin lanean zabiltzate. Noiz aurkezteko asmoa duzue?

2023ko abuztu edo irailerako estreinatzen saiatuko gara.

Donostia Zinemaldian?

Saiatzen ari gara, baina oraindik ez dakigu ezer!

Zure lanak erakusteak beldurrik sortarazten al dizu?

Filma hainbeste ezagutzen duzu, badakizula segundoro zer gertatzen den, eta zain egoten naiz pelikulako uneak noiz pasako diren. Sufrimendua da; estreinaldiak beti dira zentzu horretan zoramena. Baina, *Negu hurbilak*en kasuan, *work in progress* hauetan, ikusten duzunean harrera ona jasotzen duzula, hori eskertzen da. Eman duzun guztia bueltan jasotzen duzu.

Etengabe zabilta lanean. Non ikusten duzu zeure burua etorkizun hurbilean, ertainean eta luzera begira?

Etorkizun hurbilean ahalik eta gauza gehien egiten, ahalik eta estres handienarekin, eta proiektu desberdinekin; ertainera, pixka bat lasaitzen, eta luzera, espero dut zinemarik egiten ez egotea. Ilusiorik ez dagoenean, norberaren ezer ateratzeko aukerarik ez dagoenean, uzteko garaia da. ■■■

Markesaren arraunlariak

Zumaiako arraunaren historia hainbat katebegiz dago josita. Aroak dira. Horietako batek aurreko mendeko 40ko hamarkadako azken urteak eta Aita Mari Arraun Elkartea sortu artekoa hartzen ditu. Kanpotar ilustre batek eman zion hasiera aro horri: Forondako Markesak. Batel estropadak antolatzen hasi zen herrian. Arraunlari gazte haietako bat zen Sabin Yeregui, patroia.

Arrauna ia lehia bakarrik da gaur egun, aurkariei irabaztea. Ez da, baina, kontu berria. Aspalditik dator haren ubera. Zumaian, arraunaren historia ez da *Telmo Deun* izen mitikoaren bueltan hasten. Aurreko aro zehatz baten segida da Aita Mari Arraun Elkartea sortu eta gaur arteko bidea, eta justu aurreko hori bizi izan zuen Sabin Yeregui (Zumaia, 1933).

Etxe azpian duen garaje antzekoa museo bihurtua dauka: lanbidearekin lotutako traste zaharrak (motor egile izan ziren yereguitarrak), hango eta hemengo bestelako oroitzapenak, eta batez ere, argazki bilduma handi askoa. Arraunekoak horietako ugari. Denak paretan txukun-txukun jarrita. Adin handikoa izanagatik, burua bizi-bizi dauka oraindik, eta lau horma horien artean sartu orduko, hatza luzatuz Yereguiren mingaina azalpenak ematen hasi da: "Hori da Zumaia ekarri genuen aurreneko trofeoa, eta beste hura, lehenengo bandera". Argazkietan, mutil gazte prestuak ageri dira. Orduko arraunlariak. Tartean, bera.

Zumaian 1980ko hamarkadan hain ezagun egin zen hitza ere atera du: *rezibimientua*. Bazirela orduko hartan ere. Baina garaipenen kontuetara heldu aurretik, hasierara jo behar. Eta hor azaltzen da kanpotar ilustre bat: Forondako Markesa. Uda pasatzera herrira etortzen zen hura hasi zen batel estropadak antolatzen 1940ko hamarkadaren akaberan. Eta saritzen, moilatik Zubiaundiraino bi buelta ematen zituztenei. Bi maila zeuden: batean, 14 urtetik beherakoak lehiatzen ziren, eta, bestean, hortik gorakoak. "Aurrenekoetan irabazten zuen kuadrillari 100 pezeta ematen zizkion, eta bigarrenegokoen garaileari, 400 pezeta", kontatu du

Testua: **Aitor Manterola Garate**. Argazkiak: **Arnaitz Rubio Aprea**.



Sabin Yeregui Julio Beobide ibiltokiko etxean duen garajea.



Yeregui. Gazteenen artean lehiatzen zen Sabin, Iñaki Osa, Iñaki Amas eta Imanol Yerequirekin batera. "Beti ibiltzen ginen uretan, eta Bernardo Azkue *Iturri*-ren batelarekin plaiara [Santiagora] joaten ginen olatuak hartzera", kontatu du.

15-16 urte zeuzkanean anaiek hartu zuten haien batelean, *Arritokietako Ama* izenekoan, "Hik gurekin etorri behar duk patroï". Ona izan behar zuen yereguitarrek gehiengo ziren batel hark: "Askotan irabazten genuen Markesaren estropada. Galdu, batzuetan, baina galdutakoak ez dira esan behar", bota du barrezka. Dirua gustura asko hartzen omen zuten: "Diru horrekin aberatsak ginen-eta! Pentsa, txikito ardoak *perro* handia balio zuen!". Forondako Markesaren estropada haiek izan ez balira... "Han hasi zen dena", azaldu du indartsu Yeregui.

1952: urte emankorra

Serio hartzen zituzten lan horiek orduko zumaia gazteek. Bai, behintzat, yereguitarrek. Entrenamenduak eta guzti egiten zituzten estropada preziatu haiek prestatzeko. "Tailerretik atera 20:00ak aldean, batela hartu Moilaberriko almazenetik, bizkarrean jarri, eskailera piko askoak jaitsi, eta uretara", kontatu du. Ia egunero ibiltzen ziren horrela, udaberri eta uda garaian, eta neguan ere bai, eguraldi onarekin, saiakeraren bat edo beste egiten zuten.

Entrenamendua entrenamenduari lotuz, eta Markesaren estropadak jokatzuz, iritsi zen 1952. urtea. Emankorra izan zen oso gazte haientzat. Uretan, lehian, bizipen handiak bizitzea tokatu zitzairen, eta uretatik kanpo, gorabeheraren bat ere bai. Aurrenekoa herrian bertan izan zen, eta obisporen bat Zumaiara zetorrenez, batel estropada antolatu zen. Moila bazterrak lepo zirela jokatu zuten: "Gu ondo hasi ginen, baina behea jo genuen azkenerako", kontatu du Yeregui.

Beste ilustre batek bideratu zituen aurreneko kirol mugarri handira: "Ignacio Eizagirre portero mitikoari okurritu zitzaion batel estropada antolatu behar zuela Madrilén, Retiro parkean, sanisidroetan. Gipuzkoako Arraun Federazioko presidentea zen



orduan. Han joan ginen, eta irabazi ere bai". Eta hatzarekin, argazki bati begiratzeko gonbitea luzatu du: "Horixe izan zen aurreneko trofeoa".

Joan egin behar zen orduan Madrilera Zumaiatik. Izan zuen berea bidaiari hark. "Kamioi batean joan ginen. Mendirako-eta erabiltzen ziren MG haietako batean, tur-tur-tur. Donostiatik ekarri zuten kamioia, eta han joan ginen Hondarribia-Iruneko bateleko arraunlariak eta gu". Eserlekuak ez ziren izan edonolakoak: "Elizako banku baxuak jarri zituzten kamioiaren barruan, gu esertzeko, eta han joan ginen. Arraunak eta bi batelak, gurea eta haiena, berriez, gainean". 12 orduko bidea joateko, eta beste horrenbeste bueltatzeko. "Burgosen egin genuen gaua joaterakoan, eta hurrengo goizean, Madrilerraino". Batel hartan arraun egin zuten Sabineek, Iñaki, Severiano eta Javier Yereguik, eta Joakin Urkidik (ordezkoak Joxe Mari Gorostola eta Bernardo Azkue *Iturri* ziren).

Aurkarien artean, Hondarribia eta Irungo batelaz gain, Madril bertako bat ere bazen, eta "beste toki batzuetakoak ere bai", Yereguik esandakoaren arabera. Horiek guztiak nola prestatu ziren auskalo, baina zumaiarrak ez ziren denbora pasa joan Espainia aldera: "Astean bizpahiru aldiz, Iraetara joaten ginen entrenatzera, ibaira. Ur gozoa izan, eta orain baino dezente gehiago zegoenez, leku ona zen". Horretarako ere kamioi bat tartean: "Kastorrean eramaten genuen batela". Eta entrenamendua bezain garrantzitsua zen beste zerbait ere bai: "Bertan geratzen ginen gero afaltzen".

Kastorren kamioiak beste zeregin bat ere bete zuen Madrilgo estropadarekin lotuta. Rezibimentua egin zitzairen Madrildik bueltan. Ondo gogoan dauka Sabineek: "Luixito Urteaga-eta zain geneuzkan Madril. Sartu gintuzten Kastorren kamioian, eta herrian barrena ibili ginen, behean jendea saltoka ari zen bitartean, musika jotzen. Festaaa! Udaletxeraino joan ginen horrela". Gero, afaria eman zietela ere gogoan dauka: "Etxabe IV. renean izan zen. Dena beteta zegoen. Luze joan zen zelebrazioa".

Beste harrera bero bat ere bizi ahal izan zuten urte berean. Irungo bandera ekarri zuten, bateletakoa hura ere. Baina gero, ur aparretan

**SERIO HARTZEN
ZITUZTEN LAN HORIEK
ZUMAIAR GAZTEEK;
BAI, BEHINTZAT,
YEREGUITARREK**

**AURKARIEN ARTEAN,
HONDARRIBIA ETA
IRUNGO BATELAZ GAIN,
MADRILGO BERTAKO
BAT ERE BAZEN**

zihoan taldea hautsi egin zen, yereguitarren kalapita bat tarteko. "Ni aparte nengoen", gogoratu du Sabine, "baina gerora ere ez ziren konpondu". Kontuak kontu, beste kuadrilla bat osatu beharra zegoen, eta batel berri baten bueltan osatu zuten: "Juan Carlos Iraundegik eskatu zuen batela egiteko Orion, arraun eta guzti. Guri eman zigun", kontatu du, eta kontakizunari gehitu dio nola egon zen batel haren argazkia Goiko Bodegoian urteetan. Kuadrilla berri hartara Luxiano Pascual eta Evaristo Osa batu zituztela kontatu du Yereguik.

Txapelketa handi batera joateko aukera ere izan zuten 1952 loriatsu hartan: Espainiako Txapelketa. Sabin eta Iñaki Yereguik, Pascualek, Osak eta Gorostolak osatzen zuten batela. Irunen jokatu zen hura ere, eta zumaiaarak hirugarren geratu ziren, hamahiru lehiakidetik. "Iberia-Sestaok irabazi zuen, eta bigarren Orio geratu zen, beti irabazten zigutenak". Tarteetan, gerora Zumaian aholku batzuk eman zituen Batista Oliden oriotar mitikoa zutela. "Azkenetako, lagunak-eta dena egin ginen", kontatu du.

Ontziak garbitzeko, tipula

Beste garai batzuk ziren, beste bizimodu bat zen ordukoa. Eta arrauna ere ezberdina zen oraingoaren aldean: "Beste kirol bat da oraingoa ia-ia", dio Yereguik. Hasteko, materiala beste molde batekoa zen: "Pentsa, garaiko traineruek 400 kilo pisatzen zituzten, eta oraingoek 200 eskas". Arraunak ere egur-egurrezkoak ziren, astunak, "beruna ere sartzen zitzaielako". Material guztia zaintzeko modua ere zeharo ezberdina zen: "Tipula ematen genion ontziari, *lapizplomo* izeneko hautsa eman, eta batela distiratsu lagatzen zen, gehiago korritzeko. Tipula ebaki eta eman, hautsa gero, trapua pasa eta... Lau bat lagun ibiltzen ziren guri laguntzen... 'Aquellos tiempos del cuple'... ez zegoen dutxarik eta ezer ez garai hartan".

Entrenamenduak nolakoak ote ziren galdetuta, "oraingoan aldean zeharo ezberdinak" zirela erantzun du: "Joaldi batzuk egin, geratu, irteerak eta ziabogak entrenatu... Horrela ibiltzen ginen, geure erako entrenamenduk egiten". Hori bai. Iñaki anaia famatu du: "Hark bazekien neurrien berri-eta. Ona zen, eta entrenamenduak prestatzen zituen".

Arraunean egiteko eraz ere badu zer esanik: "Lehen, gorputza botatzen genuen atzera, eta orain arrauna botatzen da (keinua egin du eskuarekin, mugimendua adieraziz)". Etzate kontu horretara nola heldu ziren kontatu du: "Batel baten muturra geratu bezala egiten zenean uretan, korritu gabe, Iñaki anaiari esaten nion hori ez zela ona. Ezin, ba, ontzi hori aurrera joan. Orduan hasi ginen etzaten".

Traineruan ibiltzen utzi ez, eta agur

1952az geroztik, arraunaren lehia indarra hartzen hasi zen, eta trainerilla eta trainerua ere atera zituen Zumaia. Han ibiltzen zen Sabin, B trainerillako patroia, disgustu handia eman zioten arte: "Ez zidaten utzi traineruan ibiltzen, gaztea nintzela-eta. Baztertu egin ninduten, eta ez nintzen gehiago joan, minduta". Ondorengo urte batzuetan, lehiari dagokionez, bakarrik Forondako Markesaren estropadan atera zen. Bestelakoan, Iñaki anaiarekin bikoan ere atera

zen estropada batzuetan, eta irabazi ere bai bat edo beste.

Garai hartan, traineru polita omen zeukan Zumaiak. "1954an, Donostiako bandera irabaztekotan egon zen", azaldu du, orduan laguntzaile lanetan aritzen zenak. Kontxako estropada hartaz kontu honen berri eman du: "Galarraga zen patroia, eta kanpora joateko, zakua eraman zuten traineru barruan, popa aldean. Bueltakoan, barruranzko luzean, zakua uretara bota zutela, ez zutela, kontua da atzean geratu zela trainerua, eta akabo bandera". Beste kontu bategatik ere ekarri du solasaldira 1954koa: "Iberia-Sestaok irabazi zuen, eta patroia Andoni izeneko bat joan zen. Ni bezain gaztea zen. Hari lagatzen zioten, baina niri ez".

1960ko hamarkadan, Pulpo elkarteak batela erosi zien oriotarrei: "Batista Olidenena eta haiena zen". Yereguik jokatu zituen estropada batzuk talde horrekin, pare bat urtean. Baita uretara erori ere: "Donostian izan zen, badian, negu partean, bat Santo Tomasen bueltan, eta bestea San Sebastianen jiran. Hura hotza! Igerian bueltatu behar izan nuen gero lehorrera". Talde harekin ez zuen ezer irabazi.

Herriko beste arraunlariei laguntzen aritu zen gerora. Baita patroiei erakusten ere. Eta ibilian-ibilian, Aita Mari Arraun Elkarteak sortu zen urteen joanean. 1975ean izan zen. "Ez nintzen bertan sartu, orduan Anaden nenbilen zuzendaritzako postuetan". Baina berandu baino lehen egin zioten kasu klubetik, laguntzeko. Eta horri segika, arraun epaile bukatu zuen. "Agustin Iturain koinatua ibiltzen zen delegatu lanetan, Goikorekin batera [Luis Mari Goikoetxea], eta 1983an, Kontxako Banderako istilua eta gero, eskatu zidaten estropadetara laguntzeko".

Araudi osoa ikasi behar izan zuen, eta horrela egin zen epaile, hamar urtez. "Tokatu zitzaidan kontu ilunen batzuk bizitzea. Santurtziri bandera kendu eta Zierbenari eman niolako, haiek hauei enbarazu egin zitelako, santurtziarrek uretara bota nahi izan ninduten Santurtzin bertan, baina neuk bota nituen". Betirako gordetzeko oroitzapen eder bat ere badu, ordea: "Zumaiak Kontxako Banderak bigarren aldiz irabazi zuenean, 1987an, epaile lanetan nenbilen ni, uretan". Eta hatzarekin, harro, argazki bat erakutsi du: "Ikusten, hor non den traineru hori, Kontxa irabazi eta segituan". ■■■



Sortzaileen konplize eta bitartekari

Josebe Ormazuri, promozioko koordinatzailea Elkar argitaletxean

Zorteko pertsona izan dela onartzen du Josebe Ormazurik, baina gero horri zukua ateratzen ere jakin izan diola. Ondorioz, ez ditu alferrik bete hiru hamarkada Elkar argitaletxean lanean; hasieran, musikaren esparruan, eta gaur egun, promozioko koordinatzaile gisa. Bere ibilbide profesionala, aitzitik, irratian hasi zen, kazetari lanak eginez.

Testua: **Aritz Mutiozabal**. Marrazkia: **Karmele Gorroño**.

Bizitza erdia baino gehiago darama Josebe Ormazurik (Zumaia, 1965) Elkar argitaletxean lanean, eta urte hauetan guztietan euskal kulturaren bilakaeraren lekuko izan da. Bere hastapenak, baina, kazetaritza izan ziren. "Nik uste dut istripuz ikasi nuela kazetaritza, zerbait ikasi behar zelako. Ikasketak bukatu nituen, baina ez dut inoiz bokaziorik eduki". Zumaiaetik Bilbora joan zen, Leioako fakultatera Kazetaritza ikastera, eta bertan bi urte eta erdi egin zituen. Ondoren, bere kasa bukatu zituen ikasketak, lanean hasi zelako Donostian, Herri Irratian. "Larunbat arratsaldean joaten nintzen irratira, erdi bekadun moduan, Maddalene Iriartekin. Gero sartu nintzen erredakzioan parte izatera, eta Txaro Arteaga, Paco Sagarzazu eta Mariano Ferrerrek lan egiteko aukera izan nuen".

Garai hartan Herri Irratia erreferente bat zela nabarmendu du Ormazurik, "egundoko jendea" aritzen zelako, eta bertan lan egitea abagune ederra izan zela bere ibilbidean. "Adibidez, Marianorekin lan egitea sekulako zortea izan zen, punta-puntako kazetaria zelako. Horrek izugarri aberasten zaitu, kazetari bezala ez dut uste, baina bai lan egiteko moduan. Azken finean, mirestea jendea zen. Gainera,

berarekin erlazio polita mantendu nuen zendu zen arte".

Hain justu ere, irratian aritu zen azken urtean Ferrerren lantaldean jardun zuen, hark goizean goiz gidatzen zuen saioan, Jokin Aldazabalekin batera. "Ferrerrek ETBn *Sin permiso* egiteko aukera izan zuen hurrengo urtean, eta berarekin joan nintzen telebistara. 1989an izango zen. Garai gogorak izan ziren haiek, eta saio potentea izan zen hura, denetarik gertatu baitzitzaigun. Egia esan, asko ikasi nuen". Ondoren, urtebeteko tartea hartu zuen, eta *au pair* moduan Irlandara joan zen ingelesa ikastera. Bueltatutakoan, Elkar argitaletxean sartu aurreko bere azken kazetaritza lana egin zuen: "Beste urtebetez telebistan aritu nintzen, Josetxo Lizartzarekin lana eginez, *Begirik kendu gabe* saioan. Bertan nengoela Elkar argitaletxean hasteko aukera suertatu zitzaidan, 1992an, eta harrezkero, 30 urte hauetan bertan jarraitu dut".

Joxemari Goikoetxea Elkar argitaletxeko musika arloaz arduratzen zen, eta sasoi hartan disko bat argitaratzen zenean hedabidez hedabide joaten zen aleak pertsonalki eskura banatzera. "Beste garai batzuk ziren; gerora hasi zen materiala postaz bidaltzen". Irratian zebilen garaitik ezagutzen ziren Goikoetxea eta Ormazuri, eta telebistara egindako bisita batean joan zitzaion



irrimarra



galdezka zumaiaerrari ea lan egingo ote zukeen Elkarren. "Elkarrizketa bat egin zidaten, eta barrura! Musikako departamentuan hasi nintzen lanean berekin, baina hain zorte txarrarekin, ezen handik gutxira hil egin baitzen. Orduan, Anjel Valdes etorri zen, eta urteetan elkarrekin aritu ginen zeregin horretan. Gero, denboraren poderioz, beste erantzukizun batzuk izan ditut, eta egun, Elkarreko promozio koordinatzaile lanetan nabil", zehaztu du.

Artista jendea "espeziala" dela dio zentzu onean. "Normalean oso jende jatorra da, baina artistak artista dira, eta artista izan behar dute, bestela jende normala litzateke eta". Nolanahi ere, denetarik dagoea aditzera eman du, eta noiz edo noiz esan izan duela: "Liburu bat idatziko banu...". Baina argi du ez duela idatziko. "Askotariko kontuak bizi izan ditugu, baina artisen eszentrikotasun horietatik kanpo, asko ematen duen jendea da, eta harreman profesional-pertsonal majo bat lortzen duzu beraiekin. Batzuetan erre egiten zara, baina, era berean, asko betetzen zaitu".

Oro har, zorteko izan dela dio, musikari asko eta asko gertutik ezagutzeko parada izan duelako: "Mikel Laboarekin lan egiteaz aparte, lagun harremana izan dut, edo Xabier Leterekin Bilbora joaten nintzenean kontatzen zizkidan gauzak ditut gogoan. Jende asko ezagutu dut: Lourdes Iriondo, Oskorriko kideak, Joseba Tapia... Garai bateko multzo horrekin lan egitea tokatu zait, ni neska gazte bat nintzela. Bizitzako ikasgai fantastiko bat izan da niretzat, eta oraindik ere, ahal den neurrian, artista askorekin harremanari eusten diot".

Belaunaldi berriak ere kontrolatzen ditu, jada ez musikariak bakarrik, idazleak ere bai. Garaiak, ordea, aldatzen joan dira, eta komunikatzeko bideak ere bai. "Gaur egun, online egiten da

guztia, eta ez duzu artistekin aurrez aurreko erlaziorik. Gauzak konpontzen dituzu posta elektronikoaz, sortzaileak apenas ezagutu gabe". Orain nagusitzen den hoztasunarekin goibel ageri da Ormazuri. "Sasoi batean, aldiz, haiekin bizitzen zenuen guztia, haiengana jotzen zenuen, beraien etxera joaten zinen. Beste harreman bat zen. Beste era batekoa zen elkarbizitza".

Kazetaritzan ez zuen luze iraun, baina Elkar argitaletxean 30 urte bete ditu. "Askotan ez naiz jabetzen zer eman didan Elkarrek, baina atzera begira jartzen naizenean, konturatzen naiz zeinen zorte onekoa izan naizen, batez ere garaiko musikariekin egoteko, ikasteko eta haien berri beraien tokitik bizitzeko aukera izan dudalako. Gero, handia da euskal kultura bertatik bertara bizi ahal izatea argitaletxearen bitartez; gainera, oraintsu 50 urte bete dituen honetan".

Bera hasi zenetik kultura alorrean aldaketa handiak bizi izan dituela nabarmendu du; batez ere, musikaren esparruan, eta euskarriari dagokionez. "Lehen disko bat egiten zenuen eta plazan jartzen zenuenerako guztiak saltzen zenituen. Orain, ordea, sustatu egin behar duzu, eta euskarriaren beraren krisia ere hor dago. Eta

Josebe Ormazuri

- **Adina:** 57 urte.
- **Ikasketak:** Kazetaritzan lizentziatua.
- **Lanbidea:** Elkar argitaletxeko promozio koordinatzailea.
- **Elkarreko langilea ez banintz...** Haur txikien irakaslea izango nintzateke.
- **Lanetik ateratzean gogoko dut...** Buelta bat ematea; ahal bada, mendi aldera.

jendeak ere nola bizi zuen argitalpen bat: adibidez, Sorotan Beleren lehen diskoa sekulako eztanda izan zen, eta bigarrena ateratzerakoan Ser irrati kateak primizia nahi zuela esanez hots egin zigun. Gu ez geunden horrelako gauzetara ohituak". Alaitz eta Maider, Maixa eta Ixiar, Oskorri, trikitiaren boom-a... Oroitzen dituen garai arrakastatsuetako batzuk dira.

Teknologiak ere egundoko berrikuntza izan du, eta aldian-aldian egokitzea tokatu zaio. "Nik fax bidez egiten nituen prentsaurrekoetarako deialdiak, eta horretarako arratsalde pasa ederrak egiten nituen. Aurrez aurreko eta telefono bidezko harremana asko egiten genuen orduan. Gaur egun, apenas egiten dugu halakorik". Sare sozialak "gorroto" dituela aitortu du, eta "zorionez, nik ez ditut eramaten, koordinazioaz arduratzen naizelako". Nolanahi ere, badaki ezinbestekoak direla egun eta lanketa hori egin behar dela. "Baina iruditzen zait beranduegi datorrela niretzat. Gauza asko ikasi behar izan ditugu etengabe, eta pandemia garaian ere prentsaurrekoak online egin izan ditugu. Aldaketa asko dira, eta ni beste garai batekoa naiz", desenkusatu du bere burua.

Dena ez da euskal kulturgintza izango, bada. Ormazurik betidanik izan du mendizaletasuna; aitagandik dator kio. Txikitan etxekeekin joaten zen mendira, baita Indamendi mendi bazkunarekin ere.

Orain, Zarautzen bizi denez, Pagoeta mendizale elkartarekin edo lagunekin ibiltzen da asteburuetan; batez ere, hemen inguruko mendietan, baina tarteka Pirinioetara edo Espainiako beste txokoren batera ere joan ohi da. "Mendi gailurrak igotzea ez da inoiz nire helburua izan. Mendian eta mendiaz gozatzea da nire asmoa, eta lagunarte egokian bada, askoz hobeto".

Bestalde, Zarauzko Emakume Korrikalariak taldeko kidea ere bada hasiera-hasieratik, eta bere hitzetan, "hori ere istripuz" izan zen. "Ariketa fisikoa egite aldera, korrikalarien taldea sortu zutenez, bertan hasi nintzen". Entrenatuagatik ere, gero ez du lehiatzen, ez baitu bere burua kirolaritzat jotzen. Halere, Lilatoian hartzen du parte urtero, eta Behobia-Donostia lasterketa ere eginga dauka. "Baita ederki pasatu ere!". ■



NON DAGO BALEIKE?

Baleike pertsonaia aldizkariaren zein orrialdetan dagoen ezkutatuta aurkitu behar da, eta erantzuna aldizkaria@baleike.eus e-posta helbidera bidali otsailaren 21a baino lehen.

Saria: TIPITAKin bi lagunentzat gosari eder bat. Baleikeko Komunikazio Taldean bazkide izatea da baldintza bakarra.

Urtarrileko Baleike aldizkarian Baleike pertsonaia non ezkutatuta zegoen asmatu behar zen: 18. orrialdean zegoen ezkutatuta, eta **Xabier Centeno** bazkidea izan da irabazlea.





IZAN KA IRAKUR ZALE!

EGIN BAZKIDE ETA %30 EKO
DESKONTUA IZANGO DUZU
bazkide@ukt.eus • 943-81 38 41

BALEIKE

LAGUNTZAILEA:



Gipuzkoako Foru Aldundia



Amorrua ikasgai



MIREIA CENTENO

PSIKOLOGOA

Haurren haserrealdiez hitz egin izan dugu, baina gai hau oso zabala denez, gaurko honetan haserrealdiak izan ondoren haurrei laguntzeko egin ditzakegun hainbat gauzaz hitz egin nahiko nuke.

Haserrealdiak bizitza osoan zehar ditugu, baina egia da haurrek maizago izaten dituztela bigarren eta laugarren urte bitartean.

Haserrealdiak beharrezkoak eta osasuntsuak dira; hala ere, energia handia behar da, alde batetik hauek bizitzeko, eta, bestetik, hauek akonpainatzeko. Ikasketa prozesu bat ere badira, eta guk lagundu diezaiekegu haurrei prozesu honetatik gehiago ikasten eta, batez ere, prozesu hau baloratzen. Beraz, zer egin dezakegu?

Sentitzen duena ikusi duzula azaldu. Haserrealdiek haserre erakusteko balio dute. Eta haserre erakustea dute helburu. Helburu hori lortu dutela adierazi behar diogu jarrera aldatzeko. Hori egiten ez badugu, haserre erakusten jarraituko du, beharra ikusiko

duelako. "Ikusten dut oso haserre zaudela" edo "Hori ez zaizu batere gustatu eta oso haserre zaude" bezalako mezuak asko lagunduko diote ulertzen bere helburua bete dela.

Helburu hori lortzeko beste moduak ere badaudela aipatu. Zer beste modu daude haserre azaltzeko? Haserre erakusten duten hitzak eta keinuak daude, eta pixkanaka barneratu egingo dituzte. Horretarako, hiztegia lantzeak asko laguntzen du. Haurra lasaitu denean, hitz egin izan duen jarreraz, eta bere amorrua azaltzeko beste bide batzuk landu.

Beste haur eta pertsona batzuek ere izaten dituzte horrelako erreakzioak. Esan dugun bezala, guztiok ditugu haserrealdiak, eta horretaz ere hitz egin behar dugu haurrekin.

**HASERREALDIEK
HASERREA
ERAKUSTEKO BALIO
DUTE; HELBURUA HURA
ERAKUSTEA DA**

Askotan jasoko dituzte mezu negatiboak, eta hori ez da guztiz bidezkoa, arestian esan bezala, haserrealdiak beharrezkoak direlako eta ikasketa prozesu baten zati direlako.

Zuk ere izaten dituzu horrelako sentimenduak. Zuk ere badituzu, eta, gainera, horiek bizitzeko modu ezberdinak ikasi dituzu. Haurrari horiek aipatu diezazkiokezu, berak ere eredu hori izateko. Gainera, asko lagunduko du zuen erlazioan bakoitzak sentitzen dituen emozioez hitz egitea.

Zuk berdin maite eta onartzen duzu haserrealdiak onartzen dituzulako. Badakigu oraindik oso zaila egiten zaigula haserrealdiak onartzea, bai gizartean, baita pertsonalki ere. Nahiz eta ondo jakin onartu eta lagundu behar ditugula, askotan oso nekatuta gaude, eta ez dugu energia nahikoa hori guztia egiteko. Ondo dago, normala eta onargarria da. Ez gara *superrak*. Hala ere, azaldu diezaiokegu (nahiz eta askotan zaila izan haserrealdiak onartzea) bera beti onartuko dugula eta berdin maiteko dugula. ■■■

HIZKI-MARRAZKI ALFABETOA

Zeeer?! Jarri irudiño bakoitzari dagokion hizkia eta abesti ezagun baten zatia agertuko zaizu.

U

V

W

X

Y

Z


,

!

?


DOMINOAN

Dakizunez, ilargiak zikloak osatzen ditu, eta horren arabera aldatzen zaio forma, Lurretik begiratuta. Osa ezazu dominoa, forma edo fase horiek kontuan hartuta.



Handienetik txikienera

Ordena itzazu izar uxook handienari 1, hurrenari 2 eta txikienera 8 zenbakia emanazu.





ILgorako Sudokua

Osa ezazu sudokua, ILGORA osatzen duten hizkiekin (I, L, G, O, R eta A). Hizki bakoitzak behin agertu behar du lerro, zutabe eta area bakoitzeko.


HamaiKa ikusteko jaiak

Aurki itzazu bi irudi hauen artean dauden aldeak. 11 dira guztira.



Itzala

Lotu astronauta bakoitzari bere itzala.



Soluzioak ikusteko:
www.plazanbazan.eus/

Ugarte burdindegia, txikitasunean handi

1953. urtean Joxe Ugarte eta Axun Solaberrieta senar-emazteek sortutako saltokia hazten joan da, eta 70 urte eta gero, bailaran erreferentziatzat izateko lanean jarraitzen du Ugarte burdindegia.

Teknologia, konpromisoa eta kalitatea. Horiek dira Ugarte burdindegia-aren ildo nagusiak. "Enpresaren eta ezagutzaren eguneratze teknologikoa, bezeroekiko dugun konpromisoa, partikularrak nahiz profesionalak izan, eta horien beharrezan erantzuteko

nahia, eta aurrera egitea ahalbidetuko diguten proiektu berritzaileak egiteko interesa, beti ere, geure buruari ezarri diogun kalitatearen ildotik", dio Josu Astorkia burdindegiko arduradunak.

Oinarri horietatik abiatuta, gaur egun Zestoan bi salmenta puntu izatera iritsi da burdindegia. Lehena, ohiko burdindegia bezala ezagutzen denari eskainitakoa: bere jardura gehiena etxeko gaien salmentan, brikolajeen, landa-lanetako erremintetan, sarrailagintzan eta pinturan dago oinarrituta. Eta hornidura industrialari eskainitako bigarren salmenta puntuan,



mekanizazio tresna, makineria profesionala eta torloju aukera zabala aurki daiteke, beste produktu askoren artean.

Salmenta puntuez gain, ordea, Ugartek baditu beste burdindegiengandik bereizten duten aparteko zerbitzuak: "Garraio zerbitzu propioa dugu Urola Kosta eta

Debabarrena eskualdeetan banaketak egiteko, eta akordio eskusibo garrantzitsuak ditugu ebaketa tresnen, urratzaileen, metrologiaren, lubrifikatzaileen, eskuzko eta altxatze tresnen sektoreko fabrikatzaileekin", gaineratu du arduradunak.

1953. urtea zen Joxe Ugarte eta Axun Solaberrieta senar-emazteek burdindegia zabaldu zutenean. Garai hartako herriko ostalaritza jardura garrantzitsuak eta ondorengo urteetan industria jardura indartzeak eragin positiboa izan zuten



burdindegia txikian. Ugarte burdindegia Zestoako eta inguruko enpresa garrantzitsu bihurtu zen, eta gaur egun, modu berean jarraitzen du.

70 urteko ibilbideak emandako esperientziak erakutsi du bide onetik doazela, eta aurrerantzean, halaxe jarraitzeko asmoa dute. Gainera, zailtasunak eta oztopoak gainditzeko ahalmena ere erakutsi dute. Izan ere, merkataritzak orokorrean, eta COVID-19ak eraginez, dituen zailtasunei aurre egitea lortu du Ugarte burdindegia. "Txikiak gara, herri txiki batekoak, horrek dituen eta eragiten dituen zailtasunekin. Azkenean, biztanle gutxi izateak bezero gutxi ekartzen ditu. Baina, guztira, 11 langilek osatzen dugu burdindegia, eta Zestoa bezalako herri batean handiak gara. Gainera, eskualdeko enpresa ugarirentzat egiten dugu lana. Bide horretatik jarraitu nahi dugu, bailaran erreferentziak izan arte", gaineratu du Astorkiak. ■■■

Zozketak

70. urteurreneko ospakizunetan sartu da, beraz, Ugarte burdindegia. Urteurren berezia ospatzeko eta bezeroen leialtasuna saritzeko, zozketa bereziak egingo ditu. Zortzi zozketa izango dira, denera: batetik, lan egiten duten enpresen eta profesionalen artean lau zozketa; eta, bestetik, saltokietara joaten diren bezeroen artean beste lau.

1. Enpresek eta profesionalak 300 euroko erosketak egiteagatik zozketan parte hartzeko aukera izango dute, eta, irabaziz gero, Ugarte burdindegian bertan gastatzeko 500 euroko bonua eskuratuko dute.

2. Bezeroek, aldiz, hamar euroko erosketa eginez gero, beren datuak sartzeko txartela jasoko dute, eta urtaro bakoitzaren amaieran, 500 euroko balioa duen produktu sorta baten zozketan parte hartuko dute.




UGARTE BURDINDEGIA

Toribio Alzaga 16 | Portale Kalea 3 | ZESTOA

943-14 71 54 ☎ 608 33 93 39

f @ ugarteburdindegia | www.ugarte-zestoa.com



Tabernetan

TESTUA: IMANOL AZKUE IBARBIA

@ImanolAzkue

ILUSTRAZIOA: DANIEL CARBALLO
OSTOLAZA

Lehen ezer gutxirekin jartzen zen taberna bat, ez zen behar gaur egungo azpiegiturarik, baimenik, sanidaderik, segurtasunik... 1869an, Diputazioak galdetegi bat bidali zion Zumaiaiko Udalari, taberna, kafe eta antzekoak zertan ziren datuak jasotzeko, eta udalak erantzun zuen hauek zeudela: hiru kafe (sei mahairekin eta 62 jarlekurekin), lau taberna (lau mahairekin eta 70 jarlekurekin) eta frontoi bat. Horiez gain, bazeuden, ordea, tabernaren funtzioa egiten zuten leku gehiago herrigunetik kanpo, eta edateko lekuak ez ezik, herritarrak elkartzeko, sozializatzeko eta harremanetan jartzeko lekuak ere baziren, baita sesiorako ere, ikusi ahal izango dugunez. Eta tabernetan zer egiten zuten? Edan, jan, hitz egin, abestu, eztabaidatu, haserretu... euskaraz! Hiru epaiketatako adibideak ekarriko ditugu hori egiaztatzeko, hiruretan azalduko baitzaigu euskara modu desberdinetan.

Bake epaileari gaizkiesaka

1863an, Joaquin Olaizolaren aurkako ofiziozko autoa, Azpeitian. Gaizkiesaka ari omen zen bake epaileaz Andres Balentziagaren tabernan; baten

batek esan omen zion Joaquini ea ausartuko ote zen hori guztia epailearen aurrean esaten, eta hara non sartu zen tabernara bake epailea, Pedro Txapartegi, trago bat edatera:

"y alguno de los concursantes le dijo que no se atrevía a decirle en su cara las cosas que decía en su ausencia: que precisamente en ese momento entró el Juez de paz Chapartegui y en cuanto le vio **le dijo en vascuence** Joaquin Olaizola '¿Eres tú Juez de Paz? Tú no eres Juez de paz sino juez de enredos y nunca habéis hecho en toda tu vida nada con rectitud, pues eres un sucio vendido' y tan pronto hablaba en plural como en singular; que el juez de paz guardó silencio y salió de la taberna apelando al testimonio del declarante sobre las injurias que le había dirigido Olaizola, el cual continuó hablando en el mismo lenguaje, pero no puede concretar las frases que profecía"¹.

Pedro Txapartegiren deklarazioan, ez dago euskarazkoaren aipamenik:

1869AN DIPUTAZIOAK GALDETU ZION UDALARI TABERNAK ZERTAN ZIREN DATUAK JASOTZEKO

"y seguidamente encarándose con el que declara le preguntó ¿Cómo os llamais? Y contestando el testigo ¿Cómo nos hemos de llamar? Repuso Olaizola 'Vosotros os llamais jueces de enredos ¿a caso sabeis hacer una cosa recta?' y al oir esos nuevos insultos, el declarante les dijo a Pedro Galdona y Manuel Iparraguirre que los tuvieran presentez"².

Euskarazko hitzik ez zaigu azaltzen testuotan, baina erraz imajina dezakegu Joaquin gaizkiesaka euskaraz: "Zer izango haiz hi bake epailea, zer! Zuek bazterrak nahasteko epaileak zarete, besterik ez! Ez dakizue ezer zuzen egiten!". Euskara ezkutuan baina ageri-agerian, gaztelaniazko testuaren azpian.

Karabineroa arrotza

1868an, Geronimo Olaizola gaueko hamarrak aldera Jose Domingo Arostegiren pattartegian sartu zen, txopin edo kuartillo erdi pattar eroatera. Gorabeheraren bat izango zuen han, ordea, atea itxita preso hartu eta egurtu egin zuten eta. Salaketa jarri zuen, eta epaiketan banan-banan deklaratu zuten lekukoek. Gehienetan, amaieran, "que no sabe leer ni escribir" dago jasota, eta ez zuten sinatu; batek, ordea, sinatu zuen: Juan Ortiz Perezek,





karabineroak³. Begira zer adierazi zuen deklarazioan:

"relacionó que anoche continuando a su servicio Militar observó que tres personas pidieron alguna

cosa en la casa donde ocurrió el conflicto, **no sabe qué, por ignorar el dialecto vascongado**, pero vio que bajo dos personas en calzoncillos, se trabó una conversación entre ellos y al

poco rato observó voces de auxilio"⁴.

Beraz, testuan eta gainerako lekukoen deklarazioetan propio jartzen ez badu ere, euskaraz ari



ziren herritar guztiak haien artean.

Tabernariak gaztelaniaz ez 1879an, Pedro Txapartegik (bake epaile izandakoak?) salaketa jarri zuen, Benito

Eizagirrek atea ixteko trangarekin jo zuelako, Sebastian Aristondoren tabernan. Itxura denez, Txapartegik leporatzen zion Eizagirreri ez zuela behar adinako ahaleginik egin marinara eraman zituzten herriko gazteei laguntzeko, hau da, "no haber contribuido al pago como socorro para los mozos del 1877"⁵; orduan, Eizagirrek adierazi zion ez zeukala zorrik gazte haiekin, eta Txapartegik enbustero deitu zion behin eta berriz; bero-bero eginda, Eizagirrek danba jo zuen trangarekin Txapartegi.

Deklarazioan, Aristondo tabernariak hauxe deklaratu zuen: "Preguntado por el motivo de la riña o palabras que hayan podido tener dijo: que **no pudo comprender las palabras que se hayan dirigido por cuanto hablaron en castellano**, pero si recuerda y comprendió al Chapartegui en vascuence que trató de embustero al Eizaguirre, y que este en su vista levantó de su asiento y con la tranca de la puerta le dio un golpe en el costado Izquierdo"⁶. Aristondoren hitzetatik, bi kontu azpimarratzeko modukoak: bata, Txapartegi eta Eizagirre gaztelaniaz aritu zirela

elkarrizketaren zati batean (biak eskolatuak zirelako, akaso?); bestea, berriz, tabernariak ez zekiela gaztelaniaz, alajaina!

Benito Eizagirrerren deklarazioan, berriz, hauxe ageri da: "que el Chapartegui le contestó que mentía lo que decía, que le repitió por segunda y si le repetía por tercera le daría con un palo. Preguntado si llevó a cabo el hacer uso de la amenaza contestó que por repetirlo por tercera vez que mentía 'guezurraesandeq' le dio un golpe con un palo que encontró junto a la puerta de la taberna"⁷. ■■■

¹ Zumaiaiko Udal Artxiboa, 225.10 (13), 1863-10-30.

² ZUA 225.10 (18), 1863-10-30.

³ Karabineroa: segurtasun publikoko polizi erakundeko kidea, mugak eta kostaldeak zaintzea helburua zuena. 1829an sortu zen gorputza, eta Espainiako Gerra Zibila igaro eta gero, 1940an, Guardia Zibilarekin uztartu zuten (Wikipediatik hartua)..

⁴ ZUA 230 (59), 1868-01-11.

⁵ ZUA 225.11 (3), 1879-12-11.

⁶ ZUA 225.11 (5), 1879-12-11.

⁷ Ibidem.

a3 diseinua
inprimatzea

Alai 8. 20750 Zumaia (Gipuzkoa)
tel: 943-14 31 22 • fax: 943-14 31 20
a3@a3zumaia.com • www.a3zumaia.com

f t i

Agurtzane Okindegia

Erribera 2 • 943-96 21 52

Aita Mari
JATEXEA
ZUMAIA

679 10 31 67
Juan de Zigarán, 1
Zumaia
@aitamarijatexea@gmail.com

f i

AIZPURUA
LIBRURIA

Aita-Mari auzategia, 17
tel. 943-86 15 69

A
D
E
N
D
A

AL-ANON

Alkoholiko senide eta lagunen elkarte
Tel. 650 26 59 63
Ordutegia: asteazketan, 20:00-22:00
larunbatetan, 19:00-21:00

ALBERDI
dekorazioa

• Eskaiola
• Pladur-a

696 72 61 88
943-14 32 61

Amama
taberna

tel. 943-57 46 51
amamataverna@gmail.com
Ortega y Gasset kalea 4. Zumaia (Gipuzkoa)

Ane Ibarretxe • Hariz Klinika

Ardantzabide, 3 behe • Zumaia
943-54 35 70 • 688 73 38 56

OKINDEGIA
Arkupea

Nagusia, 2 • tel. 943-96 15 21
ZUMAIA

OGI-EDER

ATARI
TABERNA

Pintxo bereziak eta olagarro-zopa

Ardantzabide, 16 • Tel. 943-50 91 69

BOSCH
Service

Bosch Car Service

Autos Zumaia

Gasolina injezioa Balaztak, ABS, ESP
Diesel injezioa Mantentze mekanika
Elektrizitatea/Elektronika Motorraren mekanika
Piztea Hozte sistemak

Urola plaza 3-5 Tel. 943-86 14 85
autoszumaia@bosch-bcs.com

AXA

943-53 03 97
688 71 26 21
Kantauri 2, behe
aseguruak.zumaia@agencia.axa.es

finés, francés, euskara, inglés, alemán, español, catalán, sueco, húngaro, portugués, griego, italiano, japonés, coreano, chino, vietnamita, tailandés, indonesio, filipino, vietnamita, tailandés, indonesio, filipino

Bakun
ITZULPEN ETA ARGITALPEN
ZERBITZUAK S.L.

San Isidro, 25
20749 Arroa

tel./faxa 943-14 83 06
bakun@euskalnet.net

Basadi
albaitaritza

Albaitaria
Miki Gormendia

Basadi, 7, behe • tel. 943-14 33 10
veterinaria@basadidivet.com
www.basadidivet.com

Golez: 11-13 / Arretsalde: 15-19:30 / Astelohen goizean eta larunbatetan itxia
Larrialdetarako: 605 72 87 07 Etkez etxeko zerbitzua

BASUSTA
erretegia • asador

José Blázquez

Patzita Etxezarreta, 25 Tel.: 943-86 20 73
20750 Zumaia (Gipuzkoa) 943-86 04 38
asadorbasusta@hotmail.com

EDU
ZUMAIKOA
OPTIKA

Txomin Agirre kalea, 6
20750 Zumaia, Gipuzkoa
943-14 30 57
www.eduoptika.com

RPS 18/16

LIZZE

EGOKI

Erloju
eta bitxi denda

E. Gurrutxaga plaza, 6
tel. 943-86 17 87

"Sauna ez da kiroldegietako osagai estetiko bat, askoz esperientzia sakonagoa baizik"

TESTUA:

JUAN LUIS ROMATET

"Finlandiatik Euskal Herrira, bidaia bat saunaren bihotzera", irakur daiteke *Sauna on!* liburuaren azalean.

Eskandinaviara egindako bidaian ezagutu zuen Joseba Ossak, liburuaren egileak, sauna, eta horren inguruko hainbat gai landu nahi izan ditu Kristina Berasain kazetariaren, Juan Luis Blanco diseinatzailearen eta Elena Rodriguez ilustratzailearen laguntzarekin iaz argitaratu zuen liburuan. Elkarrizketa honetan luze hitz egin du Ossak saunaz eta haren inguruan mugitzen den guztiaz.

Zerk eraman zaitu saunaren inguruko liburu bat idaztera?

Finlandian bizi izan nuena konpartitzea izan zen lehen motibazioa. Hain esperientzia ederra izanik, hemen konpartitzeko gogoak piztu zitzaidan, baita hainbat estereotipo hausteko gogoak ere. Izan ere, oso bestelako ikuspegia daukagu hemen, eta sauna bere sakontasunean ezagutzera emateak merezi

duela iruditu zitzaidan.

Gainera, gogoeta existentzial-filosofiko batzuk egiteko aukera polita ere iruditu zitzaidan, eta ez nuen horretarako aukera galdu nahi.

Zein da zure harremana saunarekiko? Noiz eta nola sortu zen harreman hori?

Gaur egun oso harreman sendoa eta iraunkorra dela esango nuke, 35 urte iraun baitu, bikotearenak bezalaxe. 1987an sortu zen, Finlandian, hainbat leku eta testuingurutan izandako esperientziei esker: ekologisten kanpaldi batean, Eliza luteranoaren gazte zentro batean, sauna publikoetan eta Mia emaztearen familiarekin izandako esperientzietan, batez ere.

Sauna mota desberdinak egongo dira, baina kasu honetan, finlandiarraz hitz egiten duzu.

Zergatik? Berezitasunik-edo ba al du sauna finlandiarrak?

Bainu bero mota asko daude munduan, kultura askotan, eta historian zehar ere asko existitu dira, hainbat lekutan oker ulertutako arrazoi *moral* batzuen ondorioz desagertu

badira ere. Gaur egun bizi-bizirik diraute arabiarren *hammama-k*, errusiarren *bania-k*, Ameriketako *temazkala* eta *sweat lodge* delakoek, Japoniako *ofuroa-k*, bainu turkiarrak eta abarrek. Antzekoak ere badira, baina bakoitzak bere berezitasunak ditu. Kurioski, Finlandian itxura eta ezaugarri berezi batzuk hartu zituen, eta oso *bertako* bihurtu zen. Hain zuzen ere, *sauna* hitz finlandiarra da, eta horrela zabaldu da mundu osoan, hitz horrekin. Ez dugu *bainu finlandiarra* esaten, ezta *sauna errusiarra* ere, nahiz eta batzuetan elkarrengandik bereiztea zaila egiten den. **Saunaren inguruan *kultura* hitza erabili izan duzu. Finlandian saunaren *kultura* bat dagoela esan al daiteke?**

Bai, eta horixe azpimarratu nahi izan dut liburuan: ez dela kiroldegietako osagai estetiko bat, askoz esperientzia sakonagoa baizik. Finlandiar asko saunan jaio izan dira historian zehar, eta gorpu asko eraman dituzte hara garbitzera, lur eman baino lehen. Astero

PUBLIZITATEA

ekin
elektrikitate, s.l.

Erribera kalea, 6 20750 Zumaia tel. 943-14 30 97
ekinsl@ekinsl.com www.ekinsl.com

**Instalazio elektrikoak
Telekomunikazioak
Informatika
Internet**

mara **MÁSMÓV.L**

**ERNIO
TABERNA**

V. Arrate, 3 Tel. 943-86 00 45

Garoa

Carlos Cifredo - Ainhoa Olaizola

tel.: 943-86 21 81
Txomin Agirre, 9/n
40100 ZUMAIA (Gipuzkoa)

GLENCOE
INGELES AKADEMIA

TALDE MURRIZTUAK

Zumbido kalea, 12 behea
tel. 670 39 17 77

matrikulazioa dohainik!

Ikastegi homologatua

Golden Gate
institute
hizkuntz eskola

Erribera kalea 1 bis, behea
tel./faxa 943-86 50 20
info@goldengateinstitute.com

Gure Txokoa
taberna

Upela plaza, 4
20750 Zumaia
Tel.: 943-86 09 70

Harvest
English School

...eta udaran Ingalaterrara Ingelesa praktikatzera
www.academiaharvest.com

San Jose, 11 bis tel. 943-14 33 34

ilarzi

Alai auzategia, 2
Tel. 943-24 50 20

**INPERNUPE
ELKARTEA**

Erribera kalea 16. Tel. 943-86 15 23

Irlondo optika
Optometria - audio zentroa

Kantauri plaza, 8. Zumaia. tel.: 943-86 04 86
Nagusia, 53. Azkoitia. tel.: 943-85 19 84

IRUDI OTS

Ikuskizun orotarako soinu
eta argiztapen alokairua
Hots eta irudigintza aretoa

tel. 943-63 16 32 irudiots@irudiots.com

IRUITZ
ileapaindegia

Analisi kapilarrak eta
tratamendu
personalizatuak

San Telmo12 943-86 07 60

**ORRAZTEGI
ZUMAI**

943-86 20 83

KABI
Patxika Etxezarreta, 15
943-11 74 27

TABERNA

Kaithermik S.L.

Arotzeria metalikoa
Aluminiozko leihoak ZTHrekin,
PVCzkoak eta mistoak

Santiago auzoa, 20 Tel./faxa: 943-86 03 20

JUARISTI
jatetxea

Arrainak eta haragiak aukeran
Eguneko menua
Jangela klimatizatua

Basadi auzategia, 10 tel. 943-05 05 77

MAIAUR
ZUMAIA

Julio Beobide, 2 • Tel. 943 862 269

hartu ohi dute sauna. Sozializatzeko eta elkarrizketa sakonak izateko leku aproposa da. Alkoholaren beharrik gabe barruak husteko ere erabiltzen dute. Urtean zehar sauna hartzeko data berezi batzuk dituzte... Horrek guztiak (eta gehiagok) nolabaiteko kultura bat sortzen du, eta kultura sakona, gainera.

Finlandiarren tenplu edo monasterio bezala ere definitu duzu sauna. Errito erlijioso baten moduan hartzen ote dituzte saunak?

Ez nuke esango gaur egun errito erlijioso denik, zentzu klasikoan. Garai batean bai, kristautasuna iritsi aurretik ba omen zuen halako kutsu bat. Gaur egun ez da berdina, baina hori bai, ondo uztartu da haien tradizio erlijiosoarekin. Elizak ez du saunaren biluztasuna

**"SAUNA HITZ
FINLANDIARRA DA,
ETA HORRELA
ZABALDU DA MUNDU
OSOAN,
HITZ HORREKIN"**

**"ASTEROKO ERRITUALA
DA BATZUENTZAT.
ERRITO ERLIJIOSOA EZ,
BAINA IRUDITZEN ZAIT
PRAKTIKA ESPIRITUAL
MODUKO BAT BADELA"**



Nia Rissanen eta Joseba Ossa Artatzako kanpineko saunaren sarreran. JOSEBA OSSA



Ossa Rissanen familia argazki zaharrak ikusten. JOSEBA OSSA

demonizatu, debekatu. Batzuentzat bada nolabaiteko errituala (hemen txikiteoa, manifestazio batera joatea edo futbol partida bat ikustea bezala). Asteroko errituala da batzuentzat. Orduan, errito erlijioso ez, baina iruditzen zait praktika espiritual moduko bat badela. Izan ere, monasterio

edo tenplutik badu pixka bat saunak: *kontenplaziorako* leku pribilegiatua dela esango nuke, eguneroko zurrunbilotik atera, eta barrura begirako bidaia txiki bat egiteko aukera. Baita naturaz isiltasunean gozatzeko lekua ere. Gure sakon-sakonean daramagun zera horrekin konektatzeko lekua.

PUBLIZITATEA

CROISSANTERIA



pizzak
hanburgesak
bokatak...

marina

Baltasar Etxabe, 2 Tel. 943-86 22 46

maximus **PENCIL**
estudio decoración



Julio Beobide, 2 - ZUMAIA
699 49 52 56
maximuspencil@gmail.com
Deitu edo zertarako, aurretiko hitzorduekin egiten dut lan



MENDI - ONDO S.L.
Elektrizitatea

Urola plaza, 21 tel. 943-86 00 74 - 943-86 15 69
mendi-ondo@mendi-ondo.com www.mendi-ondo.com



NOIA S.L.
**TAILERRAK ETA
KARROZERIAK**

Elengabeko garabi zerbitzua **636 86 78 12 (Zumaia)**
609 83 44 38 (Itziar-Deba)

Hego kalea, B3 (Estazioan) 20750 - Zumaia
Tel.: 943-86 13 63
zumaia@carroceriasnoia.com

Itziar indutrigunea, C 20820 - Itziar-Deba
Tel.: 943-60 62 91
noia@carroceriasnoia.com www.carroceriasnoia.com



LIDEN
eraikuntzak eta arkitektura

bizkaia kalea 13, zarautz
678 875 652/ 943 905 983
lur@lidenreformas.com
www.lidenreformas.com



OREKA
KIROPRAKTIKA

Aita Mari, 17 behe - Zumaia
943-02 04 77
info@orekakiropraktika.com @oreka.kiropraktika



OSA
BERNIZATUAK

Zoruen kutxilaketa eta bernizaketa
Parketa jartzea

Estazioko kalea, 12 - tel. 943-86 14 12 - 686 36 41 49



OSTOLAZA
OSTOLAZA ZUMAIA S.L.

Joxe Mari Korta Indutrigunea, A1 - 4. pab. 20750 Zumaia (Gipuzkoa)
Tel. 943-86 50 66 - Faxa 943-86 13 45
www.ostolaza.com e-mail: osto@ostolaza.com

Ostolaza
altzariak

Tel/Fax: 943-86 13 25
Julio Beobide Ibiltokia, 1 • 20750 ZUMAIA (Gipuzkoa)
mueblesostolaza@euskalnet.net / www.mueblesostolaza.com



SOLOZABAL
autoeskolak

Etkezarreta, 19 • 943-861416
zumaia@solozabalautoeskolak.com

Bertako elikagaiak - Osteopatia - Psikologia zerbitzuak
Psikomotritizitatea - Naturopatia
www.sura.eus

Sura
ZAINZA
OINARRIAN

Patxita Etkezarreta 17 • 688 71 85 38

Talaya
taberna • jatetxea



Santiago auzoa, 4 Tel. 943-14 33 70



Tapaia
Taberna

Erribera kalea
20750 ZUMAIA (Gipuzkoa)
tel. 943-86 19 73

TTAKUN TABERNA



TTAKUN

Izustari, 3
tel. 943-86 52 89

TXIMISTA
garagardotegia

Ogitortekook
Plater konbinatuak
Txerri-ukondak (kodilloa)
Saltxitzak, oilaskoak...
Garagardoak aukeran

Ondartxo plaza, 4 behe - Tel. 943 573 905



UKENDU
**PARABOTIKA
BELARDENDA**

Aitziber Etxeberria Garro
Farmazialaria

Kantauri plaza, 2 943-86 09 92 www.ukendu.com

UZKUDUN
taberna



Eusebio Gurrutxaga plaza, 10 - 20750 Zumaia (Gipuzkoa)
Tel.: 943-11 63 97



Abenduaren 19an aurkeztu zuten liburua Alondegiko Oxford aretoan. MIREIA GALARZA BASTIDA

Behin lagun bati galdetu nion ea Finlandian ez duten monasteriorik, eta esan zidan natura eta sauna direla beraien monasterioak. Zer pentsatua eman zidan. Beste batek, berriz, esan zidan sauna dela beraien *Zen* momentua, *Zen* lekua: sinpletasuna, isiltasuna, meditazioa, deskonexioa, bakea... Eta hori ere oso ideia erakargarria eta polita iruditu zitzaidan.

Ez dute osasunarekin bakarrik lotzen saunan sartze hori. Beste zerbait gehiago ere bada, beraz. Akaso beraien kulturaren zati handi bat?

Esango nuke osasunaren alderdi hori badela beraien kulturaren osagaia. Adibidez, badira bi esaera zahar (gutxienez) horrekin lotuta: "Sauna da pobreaken farmazia" eta "Saunak, pattarrak edo

mundrunak sendatzen ez badu, gaixotasun horrek ez du sendabiderik". Atera kontua zenbateraino duten sartuta beraien kulturaren, eta osasunarekin lotuta. Baina askoz gehiago ere bada. Saunak nonahi daude: lantokietan, diputatuen parlamentuan, elizetan, jatetxe batzuetan, noria batean, ibilgailu batzuen barruan... Oso txertatuta dago beraien kulturaren.

Sauna inportatu nahi izan duzu Euskal Herrira. Oker ez banago, Arroa Beheko etxean baduzu sauna bat, baita Nafarroan duzun kanpinean ere. Nola okurritu zitzaizun, eta zer erantzun izan du?

Bueno, inoiz ez dut *inportatzeko* asmorik izan, baina hala gertatu da. Arroako etxean duela ia 30 urte jarri genuen sauna, eta handik jende

asko igaro denez, batzuei interesa piztu zitzaien, eta horrela hasi nintzen estufak ekartzen, lagunentzat (31ra iritsi arte). Pixkanaka zabaltzen joan ziren, eta halako batean, salto kualitatibo bat emateko ordua iritsi zen: "Eta sauna publiko bat egingo bagenu, Euskal Herriko txoko eder eta apropos batean?". Artatzako kanpina ezagutu, eta berehala maitemindu nintzen leku harekin. "Hauxe da leku apropos-aproposa horretarako", pentsatu nuen. Haiekin hitz egin, eta di-da, martxan jarri genuen. 10 urte igaro dira, eta ehunka, milaka lagunek gozatu dute esperientzia horretaz.

Hemengo jendeari erraza egiten al zaio saunara sartzea, edo oraindik ere arrotza egiten zaion zerbait da?



Artatzako kanpina ezagutu eta berehala mantemindu zela dio liburuaren egileak. JOSEBA OSSA

Denetarik dago, jakina. Baina esango nuke oraindik tabu eta estereotipo batzuk direla nagusi. Batetik, kirol eta estetika kontuekin lotzen da, batik bat. Edo esperientzia exotiko modura ikusten da, eta esnobismoan erortzeko arrisku handia dago. Bestetik, askok uste dute kiloak galtzeko modua dela, izerdia horrekin lotzen dutelako, baina hori ez da horrela.

Bakarrik egonda bai, baina jendearen aurrean biluzte hori... Lotsa uxatu beharko da, agian.

Bai, hala da. Denetarik dago, baina, oro har, biluztasunarekin arazoak ditugu oraindik. Etxetik hasita.

Guraso eta seme-alaba edo senide askok ez dute inoiz biluzik ikusi seniderik heldutan. Txikitatik ezagutu duenak normalizatu egiten du, gure seme-alabek bezala. Baina hori etxetik ez dakarrenari asko kostatzen zaio biluztasuna konpartitzea, batez ere ezezagunekin, berehala egiten delako sexuarekiko lotura. Eta sexuak tabu izaten jarraitzen du. Finlandian, aldiz, biluztasunaren kontua askoz normalizatuagoa daukate, naturalagoa da.

Nola planteatu duzu liburua? Saunaren alde osasuntsua lantzeko erabili duzu, edo beste alde batzuk ere lantzen dira?

Osasun kontuek ere badute lekutxo, baina txikia dela esango nuke. Lehen atala Finlandiako saunaren kulturaren ingurukoa da (historia, ohiturak, bitxikeriak...). Bigarren eta hirugarren ataletan Euskal Herriko hainbat esperientzia jasotzen dira. Geure familiatik hasita, Arroako saunaren inguruan, eta gero beste 11 kasu ere agertzen dira, argazkiz ilustratuta. Azkenik, poesia eta kontakizun labur batzuen bidez neure esperientzia eta bizipen pertsonalen berri ematen dut. Nire sauna intimoa deituko nukeena da, poetikoagoa, eta ilustrazioz apainduta.

"SAUNAK NONAHI DAUDE: LANTOKIETAN, PARLAMENTUAN, NORIA BATEAN... OSO TXERTATUTA DAGO BERAIEK KULTURAN"

"NEURE ETA BESTE PERTSONA BATZUEN ISTORIO PERTSONALAK FINLANDIAREN HISTORIEKIN LOTZEN DIRA"

Finlandiaren historia edo zuk Finlandiarekin duzun harremana ere jasotzen al duzu bertan?

Bai, zeharka bada ere, historia eta istorio ugari agertzen dira, elkar gurutzatuz. Neure eta beste pertsona batzuen istorio pertsonalak Finlandiaren historiarekin lotzen dira: independentzia, gerrak, tentsio geo-politikoak, gorabehera politikoak, gogoeta pertsonala... Denak harilkatzen dira liburuan zehar.

Kristina Berasain kazetaria, **Juan Luis Blanco** diseinatzailea eta **Elena Rodríguez** ilustratzailea izan dituzu bidelagun. Zer aportatu du bakoitzak?

Kristinak izugarritzko lana egin du kazetari modura: banan-banan bisitatu ditugu liburuan elkarrizketatzen diren pertsona eta leku guztiak. Elkarrizketa horietatik

erreportaje bikainak egin ditu, bakoitzaren altxor ezkutatuak atera eta balioa nabarmenduta. Izugarria iruditu zait bere lana. Bestetik, Juan Luisek tipografia berezi bat landu du liburu honetarako (munduan bakarra, alegia!) eta hori ere marka da!

Bestetik, diseinua eta maketazio lan bikaina egin du, bere fintasuna agerian utzita. Eta hori bakarrik ez: poesien gaztelaniazko bertsioak ere bereak dira, horretan ere abila baita. Azkenik, Elena Rodríguez egin ditu ilustrazioak, poesia eta kontakizun laburren atala ezin irudi ederragoz jantziz.

Oso talde lan ederra eta atsegina izan dugu, eta emaitzarekin oso pozik gelditu gara. ■■■



ZUMAIKO ENERGIA KOOPERATIBA

Egotetik egutera goaz.

Zumaian bertan **eguzki energia** sortuko dugu.

Eman izena orain, eta bazkide egiteko lehentasuna izango duzu



labur.eus/egutera
Eman izena inolako konpromisorik gabe



Zumaiko Udalak



GUKA ZERBITZUAK



08



Ikus-entzunezkoak

09



Argitalpen
digital
multimedia

01

Publizitatea



Papera

07



Identitatea
eta marka irudia

06



Diseinu
lanak

MARKETIN eta KOMUNIKAZIO ZERBITZUAK



Atari digitalak



Telebista

02



Estrategia eta
planifikazioa

03



Komunikazio
kanpainak

04



Edukien
sorkuntza

05



Webguneak eta
marketin
digitala

B

K

eto



KH

nurt

ZH

Araba kalea 27, 20800 Zarautz (Gipuzkoa) • Soreasu 1, 20730 Azpeitia (Gipuzkoa)

943-81 38 41 gukazerbitzuak@ukt.eus

INAUTERIAK 2023



Otsailaren
7tik 21ra

100€ko 3 erosketa bono
Erosketak herrian egiteak, saria du!!





Idoia

ARDOTEGIA

Julio Beobide, 2
943-57 49 86

Gloriarik gabeko taberna



BAR GLORIA

Egilea: Nerea Ibarzabal

Argitaratzailea: Susa

Argitaratze urtea: 2022

Orrialdeak: 183

Generoa: narrazioa



TESTUA: ANTON PEÑALBA

Bar Gloria Nerea Ibarzabalen lehenengo liburua dugu. Ibarzabalek lehendik ere badu harremanik letrekin. Bertsolaria, 2021eko Bizkaiko txapelduna izateaz gain, kazetaria da ikasketaz, eta hainbat hedabidetan zutabegile. Esatari aritu izan da, eta ari da, *Berrian*, *Argian* eta *Euskadi Irratian*, besteak beste. Txakur Gorria sormen kolektiboak argitaratutako hainbat liburutan ere idatzi du.

Bar Gloria da nobelaren epizentroa. Baserritik herri koxkor batera aldatuak dira lopetegitarrak, eta han ireki dute taberna. Aitak eusten dio baserriko bizimoduari sendoen, idi probetan aritzen baita. Tabernan aritzen dira lanean bi alabak, Rakel eta Ana, eta sukaldean ama, Bizenta. Soriatik etorritako familia bateko seme Migelek ere mutikotatik jarduten du lopetegitarren negozioan, eta anaiatzat dute Anak eta Rakelek. Bizimodu aldaketa erradikal batera presaka egokitu behar izan dutenen istorio bat da *Bar Gloria*.

Tabernako lanak hurbiltzen ditu elkarrengana pertsonaiak. Taberna itxi eta garbiketa lanekin bukatutakoan, mahai beraren bueltan biltzen dira gauero Ana, Rakel eta Migel, eta eszenatoki nagusia horixe dela, nobelak tokia egiten dio pertsonaia bakoitzaren istorioari: Migelen desira homosexual erdi ezkutukoak; Anaren herritik alde egiteko eta bestelako bizimodu bat izateko desira; Rakelek helduarorako trantzean duen bere ahizparen itzalari ihesi ezina; Bizentak gertatzen den guztiaren aurrean erakusten duen konplizitate isila; aitak, Patxik, alaba Rakelen bizimodua zuzentzeko duen nahia. Pertsonaien konplizitatea, desirak, barne gatazkak eta beldurrak, arbasoen bizitza errepikatzen kondanaturik dauden

ERAKUSTEAREN ETA IRADOKITZEAREN ALDE EGIN DU IDAZLEAK, MODU ESPLIZITUAN KONTATU BEHARREAN

pertsonaiak, desira ezkutua... zolitasun handiz eraikitzen ditu.

Nobelak auzi ugari jorratzen ditu: krisi ekonomikoa, gizonkeria, gaixotasuna, bortxa, maitasuna, inkomunikazioa, ahizpen arteko harremana, sexualitatea, ezkutuko mina, botere harremanak, frustrazioak. Heldu bilakatzeko prozesuari, lanari eta desirari buruzko liburua da, baita komunikazioari buruzkoa ere. Bereziki abila da nobelagilea eszenak sortzen: ikusi, entzun, ukitu eta usaindu egiten da tabernako giroa eta handik kanpoko eszenak. Arreta jartzen die Ibarzabalek gauza txikiei (edalontziaren koloreari, duxako azulejuen marrazkiari, kristala garbitzekoaren markari), eta hala sartzen du irakurlea duela hamarkada batzuetako giroan.

Erakustearen eta iradokitzearen alde egin du idazleak, eta hitzez hitz eta modu esplizituan kontatzeari muzin egin dio.

Iragan hurbil baten hitzezko filma dakar Nerea Ibarzabalek bere estreinako nobela honetan. ■

AGENDA

ERAKUSKETA

OTSAILAK 3-28

Inauterietako kartel lehiaketa.
Alondegia sarrera.

OTSAILAK 3-17

Indamendiren 50. urteurrena.

MARTXOAK 4-26

Itzalpeko emakumeak.

OTSAILA

3 OSTIRALA

Antzerkia: Artedrama, *Hondamendia*.
20:00etan.

4 LARUNBATA

Kantu-kalejira: Santa Ageda
abesbatza.
Beheko plazan.

9 OSTEGUNA

Zine forum: *El Menú*.
Aita Marin, 19:00etan.

9 ETA 16 OSTEGUNAK

Eskola feminista: feminismoaren
hastapenak.
Emakumeon Etxean, 18:30ean.*
10 OSTIRALA

Dokumentala: *Bi Arnas*.
Aita Marin, 19:00etan.

14 ASTEARTEA

Solasaldia: Nerea Ibarzabalen *Bar*
Gloria liburuaren inguruan. Irakurri
Matte taldean.
Alondegian, 18:00etan.

15 ASTEAZKENA

Hitzaldi zikloa: *Euskera, bestela ez*
gara.

14 ETA 16

Bilbao Mendi Film Festival Tour
Zumaian. Indamendiren urteurrena.
Aita Marin, 19:30ean.

17-20

Inauteriak.

20 ASTELEHENA

Ikuskizuna: Pirritx eta Porrotx:
Urteak bete, abenturak bizi.
Zumaianen, 15:00etan eta 17:30ean.

23 OSTEGUNA

Zine forum: *Decision to leave*.
Aita Marin, 19:00etan.

24 OSTIRALA

Liburuaren aurkezpena: Kepa
Junkeraren *Berpiztu*.
Oxford aretoan, 19:00etan.

25 LARUNBATA

XXXVIII. Herri Lasterketa.
15:45ean hasita.

yoana ✂
ileapaindegia

Amaia plaza,
2 behea
943-14 32 78



Zalla 

- plater konbinatuak
- ogitartekoak
- oilasko erreak

Urdin Plaza 3 • 943-86 23 81 ZUMAIA

ZUMAIA 

AUTOESKOLA

Basadi, 12 / 943-86 10 18 / zumaiaautoeskola@hotmail.com



bertako -REKIN BAI!
igogailuak | ascensores

DROTARIKO ZERBITZUA
100€-tik/hileko

- Baietz mantentze-lan profesionalari
- Baietz benetako 24/7/365 zerbitzuari

GIPUZKOA
943 903 450

 **www.bertako.eus**

Sarrerak



JUAN LUIS ROMATET

Sarritan egin ohi dut. Hori hala da. Besteak hitz egiten ari diren une horretan, sakelakoa poltsikotik atera eta Whatsappean, sare sozialetan edota posta elektronikoko kontuetan kuxkuxean hasten naiz. Badakit, bai, edukazio falta galanta erakusten dudala hori eginda, baina zer nahi duzue egitea: nire jakituriaren berri besteei eman ezin badiet, ez naiz, bada, besteena entzuten egongo.

Besteak auskalo zertaz ari ziren horretan, sare sozialen bidez jakin nuen Arctic Monkeys talde britaniarrak kontzertu bakarra ez, bi emango dituela Madrilen datorren uztailen. Begiak piztu zitzaizkidan, eta ez zen edaten ari nintzen ardoarengatik. Banekien Bilbon jotzekoak direla, BBK Live jaialdian, baina festibal horretara joan baino nahiago dut dentistarengana joan.

Hala, Madrilera joateko plana buruan nuela, sarrera erosteko asmoz salmenta plataforman sartu nintzen. Lehen mezua: "16 sarrera besterik ez dira geratzen salgai hitzordu honetarako". "Ostias, ostias, banoa mugitzera". Aretoko mapan klik egin (WiZink Center, 15.000 lagun; ez da txikia, ez), eta lehen aukera Patagonia parean eman zidan, agertokitik urrutiena dagoen tribunan, 89 euroan. "Jode, ez da merkea!". Kontzertuak eserita ikustea ez dut gogoko, eta pistako aukera klikatu nuen: 151 euro sarrera bakoitza. Hortxe erabaki nuen uztailen, kontzertu horretara, behintzat, ez nintzela Madrilera joango.

Eta hor, sofan botata, eguerdian edandako bizpahiru zurien efektupean, kontzertuen prezioek izan duten gorakadaren inguruan pentsatzen jarri nintzen. Ez naiz dinosauroen arora joango esatera sarrerak lehen dezente merkeagoak zirela (beno, pixka bat bai; ikusi nuen ordainpeko lehen kontzertua, Sonic Youth estatubatuarrena, Txitxarron: 1.200 pezeta, 6 euro), baina egia berdaderoa da kontzertu batzuetara joatea luxuzko produktua bihurtu dela garai hauetan. Hala zioen Jon Pagola kazetariak jakin zuenean Norah Jonesek Jazzaldian emango duen kontzerturako sarreren prezioa 95 eurokoa zela. Garestitxo, ezta? Bada, ti-ta batean agortu ziren.

Diskoak saltzen ez diren garai honetan, paradoxikoa badirudi ere, gero eta jende gehiago joaten da kontzertuetara, jaialdi eta tamaina handikoetara, bereziki. Horren jakitun da musika industria, eta sarreren prezioa neurrigabe igotzea izan da erantzuna. Pentsa, hala ere, okerrera ere egin dezakeela. Estatu Batuetan iaz martxan jarritako salmenta sistema bat da horren adibide: Bruce Springsteen birako kontzertuetan sarrerek ez zuten prezio finkorik, eta eskaeraren arabera aldatzen ziren; gorantz, noski. Bada, ez harritu joera hori hona ere heltzea egunen batean. Bitartean, klubetan eta areto txikietan ikusiko dugu elkar. ■■■

**DISKOAK SALTZEN EZ
DIREN GARAI HONETAN
GERO ETA JENDE
GEHIAGO JOATEN DA
KONTZERTUETARA**



ENDAÑETak
ez du saldu
bakarrik egiten,
arreta ere
ematen du

www.endañetazumaia.com

Erribera, 8 · 943-86 16 94 · 943-86 21 47

Tien21

ferretería Galdona S.A.




burdindegia



Industriako era guztietako
material, tresna, pieza, eta osagarriak.




**JOSE MARI KORTA INDUSTRIGUNEA · Pab. A6.1, 2-5 mod.
Tel.: 943 86 11 17**



ZUMAIAKO HERRI ESKOLA

EUSKAL ESKOLA
PUBLIKOA



Denok egiten dugu, denon etxea da

Epea: otsailaren 13tik 24ra // Ate irekiak: otsailak 18, larunbata
HH - LH: hitzorduarekin // DBH - Batxilergoa: 10:30ean

MATRIKULAZIOA ZABALIK